	Oinarri-azpia	Injekzioak	Esku-hartzerik gabe	Oinarri-azpia	Injekzioak	Esku-hartzerik gabe	Oinarri-azpia	Injekzioak	Esku-hartzerik gabe
Iragazgaitasun-maila	≤ 1		V1		D1	C2+C3+D1		D1	C2+C3+D1
	≤ 2	C2	V1	C2+C3	C2+C3+D1	C2+C3+D1	C2+C3	C2+C3+D1	C2+C3+D1
	≤ 3	I2+S1+S3+V1	I2+S1+S3+V1	I2+S1+S3+V1+D3+D4	C1+C2+C3+I2+D1+D2+S1+S2+S3	C1+C2+C3+I2+D1+D2+S1+S2+S3	C2+C3+I2+D1+D2+C1+S1+S2+S3	C2+C3+I2+D1+D2+S1+S2+S3	C1+C2+I2+D1+D2+S1+S2+S3
	≤ 4	I2+S1+S3+V1	I2+S1+S3+V1+D4		C2+C3+I2+D1+D2+P2+S1+S2+S3	C2+C3+I2+D1+D2+P2+S1+S2+S3	C1+C2+C3+I1+I2+D1+D2+D3+D4+P1+P2+S1+S2+S3	C2+C3+I2+D1+D2+P2+S1+S2+S3	C1+C2+C3+D1+D2+D3+D4+I1+I2+P1+P2+S1+S2+S3
	≤ 5	I2+S1+S3+V1+D3	I2+P1+S1+S3+V1+D3		C2+C3+I2+D1+D2+P2+S1+S2+S3	C2+C3+I1+I2+D1+D2+P1+P2+S1+S2+S3		C2+C3+D1+D2+I2+P2+S1+S2+S3	C2+C3+I1+I2+D1+D2+P1+P2+S1+S2+S3

D) Drainatzea eta hustea:

D1. Zoruaren azpiko lurraren gainean drainatze-geruza bat eta iragazte-geruza bat jarriko dira. Drainatze-geruza gisa enkatxo bat erabiliz gero, polietileno-zoko xafra bat jarri behar da haren gainean.

PUNTU BEREZIEKON KONDIZIOAK

Gorde beharrekoak dira errefortzu- eta akabera-bandak, jarraitutasun- edo eten-bandak, eta, orobat, diseinuari eragiten dion beste edozein banda antolatze-kondizioak, erabilitako iragazgaitasun-sistemari dagozkionak. Zoruen eta barne-partizioen arteko elkarguneei dagokionez; zoru barruko aldetik iragazgaitasun denean, barne-partizioa ez da iragazgaitasun-geruzaren gainean bermatuko, haren babes-geruzaren gainean baizik.

FATXADAK


IRAGAZGAIZTASUN-MAILA

Prezipitazioak ez sartzeko fatxadei eskatzen zaien gutxieneko iragazgaitasun-maila 2.5 taulan ezarrita dago, eraikina dagoen tokiari dagokion batez bestekoen zona plubiometrikoaren eta haizearekiko esposizio-mailaren arabera. Parametro horiek honela zehazten dira:


- a) Batez bestekoen zona plubiometrikoa 2.4 iruditik lortzen da.
- b) Haizearekiko esposizio-maila 2.6 taulatik lortzen da, eta faktore hauen arabera zehazten da: eraikinaren garaiera lurra-
rekiko, kokalekuari dagokion zona eolikoa (2.5 iruditik lortutakoa) eta eraikina dagoen inguru mota, zeina, EgS oinarritzko dokumentuan ezarritako sailkapenaren arabera, I., II. edo III. motako lurra denean E0 izango baita, eta gainerako kasuetan, berriz, E1.

 - I. motako lurra: Itsas bazterra edo laku-bazterra, haizearen norabidean gutxienez 5 km-ko ur-zabaleko hedadura duena.
 - II. motako lurra: Landa-lur laua, oztopo edo zuhaitzi nabarmenik gabekoa.
 - III. motako lurra: Landa-eremu malkartsua edo laua, zenbait oztopo bakan dituena, hala nola zuhaitzak edo eraikin txikiak.
 - IV. motako lurra: Hirigunea, industriagunea edo basogunea.
 - V. motako lurra: Hiri handietako negozioguneak, eraikin altu ugariak.

2.4 irudia
Urteko indize plubiometrikoaren araberrako batez bestekoen zona plubiometrikoak



2.5 irudia
Zona eolikoak



2.6 taula
Haizearekiko esposizio-maila

		Eraikinaren ingurune mota					
		E1 Zona eolikoa			E0 Zona eolikoa		
		A	B	C	A	B	C
Eraikinaren garaiera, m-tan	≤15	V3	V3	V3	V2	V2	V2
	16-40	V3	V2	V2	V2	V2	V1
	41-100 ⁽¹⁾	V2	V2	V2	V1	V1	V1

⁽¹⁾ 100 m baino garaiera handiagoko eraikinentzat eta desnibel handiko guneetatik hurbil dauden eraikinentzat, EgS-EE oinarritzko dokumentuan ezarritakoaren arabera aztertuko da haizearekiko esposizio-maila.

2.5 taula
Fatxadek izan beharreko gutxieneko iragazgaitasun-maila

		Batez bestekoen zona plubiometrikoa				
		I	II	III	IV	V
Haizearekiko exposizio-maila	V1	5	5	4	3	2
	V2	5	4	3	3	2
	V3	5	4	3	2	1

ERAIKUNTZA-IRTENBIDEEN BALDINTZAK

Kanpoko estaldura izatearen ala ez izatearen eta iragazgaitasun-mailaren arabera eraikuntza-irtenbide bakoitzari eskatzen zaizkion baldintzak 2.7 taulatik lortzen dira. Zenbait kasutan, baldintza horiek bakarrik dira; beste batzuetan, berriz, hautazko baldintza multzoak daude.

2.7 taula
Fatxadentzako irtenbideen baldintzak

Iragazgaitasun-maila	Kanpoko estaldurarekin				Kanpoko estaldurarik gabe			
	≤1	R1+C1 ⁽¹⁾				C1 ⁽¹⁾ +J1+N1		
≤2						B1+C1 +J1+N1	C2+H1 +J1+N1	C2+J2 +N2
≤3	R1+B1+C1	R1+C2			B2+C1 +J1+N1	B1+C2 +H1+J1+N1	B1+C2 +J2+N2	B1+C1 +H1+J2+N2
≤4	R1+B2+C1	R1+B1+C2	R2+C1 ⁽¹⁾		B2+C2+H1+J1+N1 B2+C2+J2+N2 B2+C1+H1+J2+N2			
≤5	R3+C1	B3+C1	R1+B2+C2	R2+B1+C1	B3+C1			

⁽¹⁾ Fatxada orri bakarrekoea denean, C2 erabili behar da.

Hona hemen baldintzak, multzo homogeneotan sailkaturik. Multzo bakoitzean, baldintza izendatzeko zenbakiak prestazio-maila adierazten du: zenbat eta zenbaki handiagoa, prestazio hobea. Horrenbestez, taulan, edozein baldintzak ordezkari dezake bere multzokoa baino izendapen-zenbaki txikiagoa duen edozein baldintza.

B) Uraren iragazpenaren kontrako hesiak ura sartzen ez uzteko duen erresistentzia:

B3. Ura sartzen ez uzteko erresistentzia oso handiko hesi bat jarri behar da. Mota horretakotzat jotzen dira honako hauek:

- Aire-ganbera aireztatu bat eta isolatzaile ez hidrofilo bat, ezaugarri hauek dituztenak:
 - Isolatzailearen kanpoko aldean jarri behar da ganbera.
 - Ganberaren beheko aldean, eta hura eteten denean, sartutako ura jasotzeko eta husteko sistema bat jarri behar da.
 - Ganberaren lodiera 3-10 cm bitartekoa izango da.
 - Aireztapen-irekidurak jarri behar dira; haien azalera eraginkor osoak, gutxienez, forjatuen arteko fatxadako horma-atalen 10 m² bakoitzeko 120 cm² izan behar du, erdia goiko aldean eta beste horrenbeste beheko aldean. Irekidura gisa erabil daitezke saretak, morterorik gabeko tarte-junturak, estaldura etenetako 5 mm baino gehiagoko zabalera juntura irekiak edo efektu bera sortzen duen beste edozein irtenbide.
- Erdiko estaldura jarraitua orri nagusiaren barneko aldean, ezaugarri hauek dituena:
 - Urarekiko behar besteko estankotasuna izatea, sartzen den urak ez dezan ukitu itxituraren barnealdearen ondo-ondoan dagoen orria.
 - Egonkortasuna bermatzeko bezain itsatsia egotea euskarrira.
 - Lurrunarekiko iragazkortasun nahikoa izatea haren eta orri nagusiaren artean lurrina metatzeak eragindako narriadura ekiditeko.
 - Euskarriaren mugimenduetara moldatzea eta pitzaduraren aurrean portaera oso ona izatea, ez dadin pitzatu egituraren mugimenduek, klimari eta eguna/gaua alternantziari loturiko esfortzu termikoek edo bere materialari dagokion berezko uzkuarek eragindako esfortzu mekanikoen ondorioz.
 - Eraso fisiko, kimiko eta biologikoen aurrean egonkortasuna izatea, haren masaren degradazioa ekiditeko.

C) Orri nagusiaren osaera:

C1. Lodiera ertaineko orri nagusi bat erabili behar da, gutxienez. Halakotzat jotzen da fabrika-obra bat, morteroz hartua, ezaugarri hauek dituena:

- ½ oin zeramikazko adreilu; zulatua edo trinkoa izan behar du kanpoko estaldurarik ez dagoenean edo kanpoko estaldura eten bat edo kanpoko isolatzaile bat mekanikoki finkaturik dagoenean.
- 12 cm zeramikazko bloke, hormigoizko bloke edo harri natural.

PUNTU BEREZIEN KONDIZIOAK

Gorde beharrekoak dira errefortzu- eta akabera-bandak eta, orobat, jarraitutasun- edo eten-bandak antolatzeko baldintzak, erabilitako iragazgaitasun-sistemari dagozkionak.

DILATAZIO JUNTURAK

Orri nagusian dilatazio-junturak jarriko dira, halako moldez non egitura-juntura bakoitzak bat egingo baitu haietako batekin, eta ondoko ondoko dilatazio-junturen arteko distantzia gehienez 2.1 taulan agertutakoa izango baita (eutsitako fabrika-obren mugimendu-junturen arteko distantzia, «EgS-F Egituren segurtasuna: Fabrika» oinarriko dokumentukoa).

Orri nagusiaren dilatazio-junturatan zigitatzaile bat jarri behar da, junturan sartutako betegarri baten gainean. Betegarri eta zigitatzaileen materialek behar adinako elastikotasuna eta itsasgarritasuna izan behar dute orriari aurreikusitako mugimenduak absorbatzeko, eta eragile atmosferikoekiko iragazgaitz eta erresistenteak izan behar dute. Zigitatzailearen sakonera 1 cm edo handiagoa izan behar du, eta lodieraren eta zabalera arteko erlazioa 0,5-2 bitartekoa. Fatxada zarpiatuetan, zigitatzea berdindu egin behar da orri nagusi zarpiatu gabearen paramentuarekin. Dilatazio-junturatan metalezko xaflak erabiltzen direnean, junturaren bi aldeetan 5 cm-ko horma-banda, gutxienez, estaltzeko moduan jarri behar dira; xafla bakoitza mekanikoki finkatuko da banda horretan eta hari dagokion muturra zigitatu egingo da (ikus 2.6 irudia).

Kanpoko estaldurak dilatazio-junturak izango ditu, hartara ondoko ondoko junturen artean aski distantzia izan dadin estaldura ez pitzatzeko.


2.6 irudia
Adibideak: dilatazio-junturak



FATXADAREN HASIERA ZIMENDUETATIK

Hesi iragazgaitz bat jarri behar da, kanpoko zoruaren mailaren gainetik 15 cm baino gehiagora fatxadaren lodiera guztia estaliko duena, kapilaritatearen ondorioz urak gora egin ez dezan, edo ondorio berdina sortzen duen beste irtenbide bat erabili.

Eraikina material porotsuz eginda dagoenean edo estaldura porotsu bat duenean, ziprizinetatik babesteko, batetik, zokalo bat jarriko da, hurrupaketa-koefizientea % 3 baino txikiagoa duen material batez egina, kanpoko zoruaren mailaren gainetik 30 cm baino gehiagoko garaiera izango duena, hormaren iragazgaigarria edo hormaren eta fatxadaren arteko hesi iragazgaitza estaliko duena; bestetik, fatxadarekin duen loturaren goiko aldea zigilatu egingo da, edo ondorio berdina sortzen duen beste irtenbide bat erabiliko da (ikus 2.7 irudia).




Zokaloa jartzea beharrezko ez denean, fatxadaren kanpoaldeko hesi iragazgaitzaren errematea 2.4.4.1.2 atalean adierazi bezala egingo da, edo zigilatu egingo da.

FATXADAREN ETA FORJATUEN ARTEKO ELKARGUNEAK


Forjatuek orri nagusia eteten dutenean eta kanpoko estaldura jarraitua dagoenean, irtenbide hauetako bat hautatu behar da (ikus 2.8 irudia):

- Orri nagusiaren eta forjatu bakoitzaren artean, forjatuen azpitik, 2 cm-ko lasaiera utziz, desolidarizazio-juntura bat jartzea, zeina, ondoren, orri nagusia uzurtutakoan, forjatuaren aurreikusitako deformazioarekin bateragarria den elastikotasuneko material batez beteko baita eta ura sartzen ez uzteko tantakin batekin babestuko.
- Kanpoko estaldura mailasareekin sendotzea, forjatuaren luzera osoan, elementua gaintuz, forjatuaren gainetik 15 cm-raino eta fabrika-obraren lehenengo ilararen azpitik 15 cm-raino.



FATXADAREN ETA ZUTABEEN ARTEKO ELKARGUNEAK

Zutabeek orri nagusia eteten dutenean, estaldura jarraituko fatxaden kasuan, zutabea bi aldeetatik 15 cm gaintutako duten armadurekin sendotu behar da orri nagusia. Zutabeek orri nagusia eteten dutenean, zutabeen kanpoko aldetik orri nagusia baino lodiera txikiagoko piezak jarri gero, pieza horien egonkortasuna lortzeko, armadura bat edo ondorio berdina sortzen duen beste edozein irtenbide jarriko da (ikus 2.9 irudia).




AIRE-GANBERA AIREZTATUAREN ETA FORJATUEN ETA BAOBURUEN ARTEKO ELKARGUNEAK

Forjatu batek edo baoburu batek ganbera eteten duenean, han sartutako edo kondentsatutako ura jasotzeko eta husteko sistema bat jarri behar da.

Ura jasotzeko sistema gisa elementu jarraitu iragazgarri bat erabiliko da (xafla, profil berezia eta abar), eta ganberaren hondoan jarriko da, kanpoalderantzko inklinazioarekin, halako moldez non goiko ertza hondotik 10 cm-ra izango baitu, gutxienez, eta ebakuazio-sistemaren punturik altuenaren gainetik 3 cm-ra, gutxienez (ikus 2.10 irudia). Xafla bat jartzen denean, haren lodiera guztia barne-orrian sartu behar da.

Ura husteko, sistema hauetako bat jarri behar da:


- Ura kanpoaldera eramateko hodi multzo bat, material estankozkoa, gehienez 1,5 m-ko tartea dagoela hoditik hodira (ikus 2.10 irudia).
- Lehenengo ilaran morterorik gabeko tarte-juntura multzo bat uztea, gehienez 1,5 m-ko tartearrekin, zeinaren luzera guztian egongo baita, kanpoalderaino, ganberaren hondoan ura jasotzeko jarritako elementua.



Eskatutako iragazgaitasun-maila 5 denean, arotzeriak fatxadaren kanpoaldeko paramentuarekiko atzeraemanak badaude, aurremarkoa jarri behar da, eta hesi iragazgaitz bat jarri behar da zangoetan orri nagusiaren eta aurremarkoaren edo markoaren artean, hormaren barnealderantz 10 cm luzatuko dena (ikus 2.11 irudia).

Markoaren eta hormaren arteko juntura kordoi batekin zigitatu behar da, zeina horman sartuko baita, bi ertz paraleloren artean ahokatua geratzeko moduan.

2.11 irudia
Adibidea: fatxadaren eta arotzeriaren arteko elkargunea




Arotzeria fatxadaren kanpoaldeko paramentuarekiko atzeraemana dagoenean, leiho-koska isurari batekin errematatu behar da, hara heltzen den euri-ura kanpoaldera husteko eta haren azpiko fatxadaren zatira irits dadila saihesteko. Bestalde, bao-buruan tantakin bat jarriko da, euri-ura burualdearen beheko aldetik arotzeriara joan ez dadin, edo ondorio berdinak sortzen dituzten irtenbideak.

Isurariak kanpoalderantzko 10^o-ko malda izan behar du, gutxienez, eta iragazgaitza izango da, edo markoari edo hormari finkatutako hesi iragazgaitz baten gainean jarriko da (marko edo horma horrek leiho-isurkiaren atzeko aldetik eta bi aldeetatik luzatu behar du eta kanpoalderantzko 10^o-ko malda izan behar du, gutxienez). Isurariak tantakin bat izan behar du irtengunearen azpiko aldean, fatxadaren kanpoaldeko paramentutik gutxienez 2 cm-ra bananduta, eta zangotik gutxienez 2 cm-ra banatuta izango du aldea (ikus 2.12 irudia).

Tantakinak dituzten piezen junturek haren forma bera izan behar dute, haien bitartez fatxada aldera sortzeko.

2.12 irudia
Adibidea: isuraria



KARELAK ETA FATXADETAKO GOIKO ERREMATATEAK

Karelak isurariarekin errematatu behar dira, haien goiko aldera heltzen den euri-ura husteko eta haren azpian dagoen fatxada-zatira hel dadin ekiditeko. Halakorik ezean, ondorio berdina sortzen duen beste irtenbide bat erabiliko da.

Isurariak, gutxienez, 10^o-ko inklinazioa izan behar dute, ura doan alderako irtenguneen azpiko aldean tantakinak izan behar dituzte, kareleko dagozkien paramentuetatik gutxienez 2 cm-ra bananduak, eta iragazgaitzak izan behar dute edo kanpoalderantzko 10^o-ko malda (gutxienez) duen hesi iragazgaitz baten gainean jarri behar dira. Dilatazio-junturak jarri behar dira bi piezatik behin, harrizkoak edo aurrefabrikatuak badira, eta 2 metrotik behin, zeramizkoak badira. Isurariaren arteko junturak zigitatze egoki batekin iragazgaitz izateko moduan egingo dira.

FATXADARA AINGURATZEA

Barandak, mastak eta halako elementuen ainguraketak fatxadaren plano horizontal batean egitendirenean, urari bertatik sartzen ez uzteko moduan egingo da ainguraketaren eta fatxadaren arteko juntura; alegia, zigitatuz, gomazko elementu baten bidez, metalezko pieza baten bidez edo ondorio berdina sortzen duen beste elementu baten bidez.

ESTALKIAK

IRAGAZGAITASUN-MAILA

Estalkie iragazgaitasun-maila bakarra eskatzen zaie, eta ez du zerikusirik klima-faktoreekin. Edozein eraikuntza-irtenbide iragazgaitasun-maila hori iristen du baldin eta ondoren zehaztutako baldintzak betetzen baditu.

ERAIKUNTZA-IRTENBIDEEN BALDINTZAK

Estalkie elementu hauek izan behar dituzte:

- Malda eratzeko sistema bat: estalkia lau denean, edo inklinatua denean eta haren euskarri erresistentearen malda ez dagoenean erabiliko den babes eta iragazgaitze motara egokitua.
- Lurrunaren kontrako hesi bat isolatzaile termikoaren azpi-azpian: «Energia aurrezte» oinarritzko dokumentuko HE1 atalean zehaztutako kalkuluaren arabera, elementu horretan kondentsazioak sortuko direla aurreikusten denean.
- Geruza bereizle bat isolatzaile termikoaren azpian: material kimikoki bateraezinek elkar ukitzea eragotzi behar denean.
- Isolatzaile termiko bat: «Energia aurrezte» oinarritzko dokumentuko HE1 atalean zehaztutakoari jarraikiz.
- Geruza bereizle bat iragazgaitzen-geruzaren azpian: material kimikoki bateraezinek elkar ukitzea eragotzi behar denean edo iragazgaitzen-geruza eta sistema ez itsatsietako euskarri-elementuak itsastea saihestu behar denean.
- Iragazgaitzen-geruza bat: estalkia lau denean edo inklinatua denean eta malda eratzeko sistemak ez duenean 2.10 taulan eskatutako inklinazioa edo babesgarriko piezen teilakatzea nahikoa ez denean.
- Geruza bereizle bat babes-geruzaren eta iragazgaitzen-geruzaren artean, kasu hauetan:
 - Bi geruzak itsastea saihestu behar denean.
 - Iragazgaitzenak puntzonaketa estatikoarekiko erresistentzia txikia duenean.
 - Babes-geruza gisa honako hauek erabiltzen direnean: zoladura flotatzailea, euskarrien gainean bermatua; legarra, hormigoizko errodadura-geruza bat, morterozko edo landare-lurrezko geruza baten gainean jarritako aglomeratu asfaltikozko errodadura-geruza bat. Azken kasu horretan, gainera, geruza bereizlearen gain-gainean, drainatze-geruza bat jarri behar da, eta haren gainean, iragazte-geruza bat. Legarra erabiliz gero, geruza bereizleak puntzonaketen kontrakoak izan behar du.
- Geruza bereizle bat babes-geruzaren eta isolatzaile termikoaren artean, kasu hauetan:
 - Babes-geruza gisa landare-lurra erabiltzen denean; horrez gain, geruza bereizle horren gain-gainean, drainatze-geruza bat jarri behar da, eta haren gainean, iragazte-geruza bat.

- ii) Estalkian oinezkoak ibil daitezkeenean; kasu horretan, geruza bereizleak puntzonaketen kontrakoa izan behar du.
- iii) Babes-geruza gisa legarra erabiltzen denean; kasu horretan, geruza bereizleak iragazlea izan behar du, agregakin finak pasatzen ez uzteko modukoa eta puntzonaketen kontrakoa.
- i) Babes-geruza bat, estalkia lau denean, iragazgaizpen-geruza autobabestua denean izan ezik.
- j) Teilatu bat, estalkia inklinatua denean, iragazgaizpen-geruza autobabestua denean izan ezik.
- k) Urak husteko sistema bat, erretenez, hustubidez eta gainezkabidez osatua egon daitekeena, OD-HO dokumentuko HO 5 atalean zehaztutako kalkularen arabera neurtua.

2.9 taula
Estalki lauen maldak

Erabilera		Babesgarria	Malda, %-tan
Ibiltzeko estalkiak	Oinezkoak	Zoladura finkoa	1-5 ⁽¹⁾
		Zoladura flotatzailea	1-5
	Ibilgailuak	Errodadura-geruza	1-5 ⁽¹⁾
Ez ibiltzeko estalkiak		Legarra	1-5
		Xafia autobabestua	1-15
Lorategi-estalkiak		Landare-lurra	1-5

⁽¹⁾ Arrapalei ez zaie aplikatzen gehienezko maldaren muga.

MALDAK ERATZEKO SISTEMA

Maldak eratzeako sistemak behar besteko kohesioa eta egonkortasuna izan behar ditu eskakizun mekanikoei eta termikoei aurre egiteko, eta gainerako osagaiei eusteko eta haiek finkatzeko moduko osaera izan behar du.

Malda eratzeako sistema denean iragazgaizpen-geruzari eusten dion elementua, hura osatzen duen materialak bateragarria izan behar du material iragazgaizgarriarekin eta, orobat, haren eta iragazgaizgarriaren arteko lotura-moduarekin.

Malda eratzeako sistemak, estalki lauetan, ura husteko elementuetarantzko malda bat izan behar du, 2.9 taulan adierazitako tarteen barruan sartzen dena, zeina estalkiaren erabileraren eta babes motaren arabera zehazten baita.

Maldak eratzeako sistemak, estalki inklinatuetan, estalkiok iragazgaizpen-geruzarik ez dutenean, 2.10 taulan lortutakoa baino malda handiagoa izan behar du ura husteko elementuetarantz, teilatu motaren arabera.

ISOLATZAILE TERMIKOA

Isolatzaile termikoaren materialak sistemaren eskakizun mekanikoen aurrean behar den sendotasuna emateko moduko kohesioa eta egonkortasuna izan behar ditu.

Isolatzaile termikoa eta iragazgaizpen-geruza kontaktuan daudenean, bi materialok bateragarriak izan behar dute; bestela, geruza bereizle bat jarriko da bien artean.

Isolatzaile termikoa iragazgaizpen-geruzaren gainean jartzen denean eta urarekiko kontaktuaren eraginpean geratzen denean, egoera horri aurre egiteko moduko ezaugarriak izan behar ditu isolatzaile horrek.

IRAGAZGAIZPEN-GERUZA

Iragazgaizpen-geruza bat jartzen denean, hura osatzen duten materialetako bakoitzari dagozkion baldintzen arabera eman eta finkatu behar da. Ondoren zehaztutako materialak erabil daitezke, edo ondorio berdina sortzen duen beste edozein.

BABES-GERUZA

Babes-geruza bat jartzen denean, geruza osatzen duen materialak egurats zabalarekiko erresistentea izan behar du, aurreikusitako giro-kondizioen arabera, eta haizearen hurrupaketari aurre egiteko adinako pisua izan behar du.

Honako material hauek erabil daitezke, edo ondorio berdina sortzen duen beste edozein:

- a) Estalkia ibiltzeko ez denean, legarra, zoladura finkoa edo flotatzailea, morteroa, teilak eta geruza astun eta egonkorra osatuko duten beste material batzuk.
- b) Estalkia oinezkoak ibiltzeko denean, zoladura finkoa, flotatzailea edo errodadura-geruza.
- c) Estalkia ibilgailuak ibiltzeko denean, errodadura-geruza.

LEGAR-GERUZA

Legarra askea edo morteroz aglomeratua izan daiteke. Legar askea % 5 baino gutxiagoko malda duten estalkietan bakarrik erabil daiteke.

Legarrak garbia izan behar du, eta substantzia arrotzik gabea. 16-32 mm bitarteko tamaina izan eta gutxienez 5 cm lodiko geruza osatu behar du. Estalkiaren zati bakoitzean legar-lasta egokia jarri behar da, haren esposizio-gune desberdinen arabera.

Ibiltzeko estalkientzako egokia den material batez egindako babes-geruza batekin, lan egiteko korridoreak eta guneak jarri behar dira, hartara errazago izan dadin estalkian ibiltzea, sistema ez hondatzeko mantentze-lanak egin behar direnean.

PUNTU BEREZIEN KONDIZIOAK

ESTALKI LAUAK

Gorde beharrekoak dira errefortzu- eta akabera-bandak, jarraitutasun- edo eten-bandak, eta, orobat, diseinuari eragiten dion beste edozein banda antolatzeako kondizioak, erabilitako iragazgaizpen-sistemari dagozkionak.

DILATAZIO-JUNTURAK

Estalkiaren dilatazio-junturak jarri behar dira, eta ondoz ondoko dilatazio-junturen arteko distantzia 15 m izango da, gehienez. Paramentu bertikal batekin edo egitura-juntura batekin elkargune bat dagoen bakoitzean, dilatazio-juntura bat jarri behar da haiekin bat. Estalkiaren geruza guztiei eragin behar diete junturek, euskarri erresistente gisa erabiltzen den elementutik abiatuta. Dilatazio-junturen ertzek kamutsak izan behar dute, gutxi gorabehera 45°-ko angelukoak, eta junturaren zabalerak 3 cm baino handiagoa izan behar du.

Babes-geruza zoladura finkokoa denean, dilatazio-junturak jarri behar dira hartan. Juntura horiek piezei, heltzeko morteroari eta zoladuraren asentu-geruzari eragin behar diete, eta honela jarri behar dira:

- a) Estalkiaren junturekin bat eginez.
- b) Estalkiaren kanpoko eta barneko perimetroan eta paramentu bertikalekiko eta aldez aldeko elementuekiko elkar-guneetan.
- c) Lauki-sare eran, gehienez 5 m-ra jarrita aireztatu gabeko estalkietan eta gehienez 7,5 m-ra estalki aireztatuetan, halako moldez non junturen arteko horma-atalen neurriek 1:1,5 erlazioa izango baitute, gehienez.


Junturetan zigilatzaile bat jarri behar da, haien barruan sartutako betegarri baten gainean. Zigilatzeak eta estalkiaren

babesgarri-geruzaren gainazalak berdinduta geratu behar dute.

ESTALKIAREN ETA PARAMENTU BERTIKAL BATEN ARTEKO ELKARGUNEA

Iragazgaizpena luzatu egin behar da paramentu bertikaletik gora, estalkiaren babesgarriaren gainetik 20 cm, gutxienez (ikus 2.13 irudia).

Estalkiaren eta paramentuaren arteko elkargunea gutxi gorabehera 5 cm-ko kurbadura-erradioarekin biribilduz egin behar da, edo neurri berdintsu bat alakatuz, iragazgaizpen-sistemaren arabera.



Prezipitazioetako ura edo paramentutik lerratzen dena iragazgaizpenaren goiko errematetik sar ez dadin, modu hauetako batean edo ondorio berdina sortzen duen beste edozein modutan egin behar da erremate hori:

- Gutxienez 3×3 cm-ko erreten batekin, zeinetan iragazgaizpena lantzerka finkatuko baita morteroz, horizontalarekiko 30° -ko angelua eratuz, gutxi gorabehera, eta paramentuaren ertza biribilduz.
- Atzeraemangune batekin, zeinaren sakonera 5 cm baino handiagoa izango baita paramentu bertikalaren kanpoko gainazalarekiko, eta garaiera 20 cm baino handiagoa estalkiaren babesgarriaren gainetik.
- Goiko aldean gutxienez irtengune bat duen profil metaliko herdoilgaitz batekin, zeinak balioko baitu profilaren eta hormaren arteko zigilatze-kordoi batentzako oinarri gisa. Beheko aldean irtengunerik ez badu, ertza biribildu egin behar da, xafla ez hondatzeko.

ESTALKIAREN ETA ALBOKO ERTZAREN ARTEKO ELKARGUNEA

Modu hauetako batean egin behar da elkargunea:

- Iragazgaizpena gutxienez 5 cm luzatuz teilatu-hegalaren edo paramentuaren aurrealdearen gainean.
- Hegal horizontalarekin angelua egiten duen profil bat jarritz —10 cm baino gehiagoko zabalera izan behar du—, isurkian ainguratua, halako moldez non hegal bertikala zintzilik geratuko baita paramentuaren kanpoko aldetik, tantakin gisa, eta iragazgaizpena luzatu egingo baita hegal horizontalaren gainean.

ESTALKIAREN ETA HUSTUBIDEEN EDO ERRETEKEN ARTEKO ELKARGUNEA

Hustubidea edo erretena pieza aurrefabrikatua izango da, erabilitako iragazgaizpen motarekin bateragarria den ma-

terialez egindakoa, eta gutxienez 10 cm zabaleko hegal bat izan behar du goiko ertzean.

Zorrotena trabatu dezaketen solidoak pasatzen ez uzteko babes-elementu bat izan behar du hustubideak edo erretenak. Ibiltzeko estalkietan, elementu hori babes-geruzarekin berdindua egongo da, eta ibiltzeko ez diren estalkietan, berriz, babes-geruzatik irten egin behar du.


Iragazgaizpenari eusteko balio duen elementua beheratu egin behar da hustubideen inguruan edo erretenen perimetro osoan (ikus 2.14 irudia), iragazgaizgarria jarri ondoren ere, ura husteko noranzkoan malda egokia izaten jarraitzeko moduan.

Iragazgaizpena 10 cm luzatuko da, gutxienez, hegalen gainetik.


Iragazgaizgarriaren eta hustubidearen edo erretenaren arteko loturak estankoa izan behar du.

Hustubidea estalkiaren zati horizontalean jartzen denean, paramentu bertikalekiko elkargunetik edo estalkitik irteten den beste edozein elementurekiko elkargunetik gutxienez 50 cm-ko tartea utziz jarri behar da.

2.14 irudia
Euskarriaren beheragunea hustubideen inguruan



2.15 irudia
Gainezkabidea



Hustubidearen goiko ertzak estalkiaren jariatze-mailaren azpitik geratu behar du. Paramentu bertikal batean jartzen denean, hustubideak sekzio angeluzuzena izan behar du. Hegal bertikal estaltzeko iragazgaizgarri bat jarri behar da, estalkiaren babesgarritik gora 20 cm-raino gutxienez iritsiko dena. Erreten bat jartzen denean, haren goiko ertzak estalkiaren jariatze-mailaren azpitik geratu behar du, eta hari eusten dion elementuari finkatu behar zaio.

ESTALKIAREN ETA ALDE ALDEKO ELEMENTUEN ARTEKO ELKARGUNEA

Paramentu bertikalekin eta estalkiko elementu irtenekin dituzten elkarguneetatik gutxienez 50 cm-ra jarri behar dira aldez aldeko elementuak.

Babes-elementu aurrefabrikatuak edo in situ eginak jarri behar dira, aldez aldeko elementutik gora, eta 20 cm egin behar dute gora, gutxienez, estalkiaren babesgarriaren gainetik.

TXOKOAK ETA IZKINAK

Txokoetan eta izkinetan babes-elementuak jarri behar dira, aurrefabrikatuak edo in situ eginak; txokoa edo izkina osatzen duten bi planoek eta estalkiaren planoak eratutako erpinetik 10 cm-ra iritsi behar dute, gutxienez.

SARBIDEAK ETA IREKIDURAK

Paramentu bertikal bateko sarbideak eta irekidurak honela egin behar dira:

- Estalkiaren babesgarriaren gainetik gutxienez 20 cm-ko garaierako desnibela jarritz, hura estaltzen duen iragazgaizgarri batekin babestua, zeina, irekiduraren alboetatik gora, desnibel horren gainetik 15 cm gorago iritsiko baita, gutxienez;
- Paramentu bertikalarekiko atzeraemanda jarritz, 1 m gutxienez. Sarbidera bitarteko zoruak % 10eko malda izan behar du kanporantz, eta estalkia bezala tratatuko da, salbu ura karelik gabe aske isurtzen duten balkoneretako sarbideen kasuan, non gutxienezko malda % 1ekoa izango baita.

Estalkiaren paramentu horizontalean dauden sarbideak eta irekidurak egiteko, irekigunearen inguruan karelik bat jarri behar da, zeinak estalkiaren babesgarriaren gainetik 20 cm-ko garaiera izango baitu, gutxienez, eta 2.4.4.1.2 atalean zehaztu bezala iragazgaiztuko baita.

NEURRIAK DRAINATZE-HODIAK

Drainatze-hodien gutxienezko eta gehieneko maldak eta diametro izendatua 3.1 taulan adierazitakoak izango dira.

3.1 taula
Drainatze-hodiak

Iragazgaiztasun-maila ⁽¹⁾	Gutxienezko malda (%-tan)	Zorupeko drainak	Gutxienezko diametro izendatua (mm-tan)	
			Malda, % -tan	Hormaren perimetroko drainak
1	3	14	125	150
2	3	14	125	150
3	5	14	150	200
4	5	14	150	200
5	8	14	200	250

⁽¹⁾ Iragazgaiztasun-maila hori da 2.1.1 atalean hormentzat ezartzen dena eta 2.2.1 atalean zoruentzat ezartzen dena.

Drainatze-hodiaren zuloen azalera, metro linealeko, 3.2 taulatik lortutakoa izango da, gutxienez.

3.2 taula
Drainatze-hodien zuloen gutxienezko azalera

Diametro izendatua	Zuloen gutxienezko azalera osoa (cm ² /m-tan)
125	10
150	10
200	12
250	17

ERAIKUNTZA-PRODUKTUAK

SARRERA

Eraikinen itxurak osatzen dituzten eraikuntza-produktuen propietate hidrikoek ezaugarritzen dute eraikinok uraren aurrean duten portaera.

Isolamendu termikoko produktuak eta fatxadaren orri nagusia osatzen duten produktuak propietate hauen bidez sailkatzen dira:

- Kapilaritatezko ur-absortzioa [g/(m².s^{0,5}) edo g/(m².s)]
- Hurrupaketa edo hasierako ur-xurgatzearen tasa [kg/(m².min)]
- Murgiltze osoko ur-absortzioa epe luzera (% edo g/cm³)

Lurrunaren kontrako hesiarentzako produktuak, berriz, ur-lurruna sartzen ez uzteko erresistentziaren arabera sailkatzen dira (MN·s/g edo m²·h·Pa/mg).

Iragazgaiztuko produktuak propietate hauen arabera sailkatzen dira, duten erabilera oinarrituz:

- Estankotasuna
- Sustraiak sartzen ez uzteko erresistentzia
- Zahartze artifiziala, erradiazio ultramorearen, tenperatura altuen eta uraren eraginpean denbora luze egoteagatik
- Isurpenarekiko erresistentzia (°C)
- Dimensio-egonkortasuna (%)
- Zahartze termikoa (°C)
- Malgutasuna tenperatura baxuetan (°C)
- Karga estatikoarekiko erresistentzia (kg)
- Karga dinamikoarekiko erresistentzia (mm)
- Hausturarekiko luzapena (%)
- Trakzioarekiko erresistentzia (N/5cm)

FATXADEN ORRI NAGUSIAREN OSAGIAK

Orri nagusia hormigoizko blokez eginda dagoenean, autoklabean ondutako hormigoizkoa izan ezik, blokeen absortzio-balioa, UNE 41 170:1989 saiakuntzaren arabera neurtua, 0,32 g/cm³ izango da gehienez.

Orri nagusia ageriko hormigoizko blokez eginda dagoenean, blokeen hurrupaketa-koefizientearen batez besteko balioa, UNE

EN-772 11:2001 eta UNE EN 772-11:2001/A1:2006 saiakuntzen arabera neurtua eta 10 minuturako, gehienez 3 [g/(m²·s)] izango da, eta koefizientearen balio indibiduala, berriz, gehienez 4,2 [g/(m²·s)].

Orri nagusia adreiluz edo kanpoko estaldurarik gabeko blokez egina denean, adreiluak eta blokeak bistakoak izango dira.

ISOLATZAILE TERMIKOA

Isolatzaile termikoak, orri nagusiaren kanpoaldean jartzen denean, ez-hidrofiloa izan behar du.

PRODUKTUEN OBRAKO JASOTZE-KONTROLA

Proiektuaren baldintza-agirian zehaztu behar dira produktuak jasotzeko kontrol-baldintzak; hartan jasoko dira, orobat, produktu horiek aurreko ataletan eskatutako ezaugarriak betetzen dituztela egiaztatzeko egin beharreko saiakuntza guztiak.

Jasotako produktuek honako hauek betetzen dituztela egiaztatu behar da:

- a) Proiektuaren baldintza-agirian zehaztutakoak direla
- b) Behar den dokumentazioa badutela
- c) Eskatutako propietateak badituztela
- d) Probatu direla, baldin eta baldintza-agirian hala ezartzen bada edota obrako lanen zuzendariak hala erabakitzen badu, obraren zuzendariaren oniritziarekin betiere, eta zehaztutako maiztasunarekin.

EKTren I. parteko 7.2 artikuluan adierazitako irizpideei jarraitu behar zaie kontrola egitean.

ERAIKUNTZA

Produktuek izan behar dituzten gutxieneko ezaugarri teknikoak zehaztu eta justifikatuko dira proiektuan, eta, halaber, obra-unitate bakoitza egiteko baldintzak, zehaztutako egiaztapen eta kontrolak barne, proiektu horretan adierazitakoarekin bat datozela egiaztatzeko, EKTren I. parteko 6. Artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

ERAIKUNTZA-LANA

Proiektuak ezarritakoa, dagokion legediak ezarritakoa, eraikuntzako jardun egokiari buruzko arauak zehaztutakoa eta obraren zuzendariak zein obrako lanen zuzendariak agindutakoa betez egingo dira atal honi dagozkion eraikinaren eraikuntza-lanak, EKTren I. parteko 7. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Baldintza-agirian zehaztuko dira itxiturak egiteko baldintzak.

LANEN KONTROLA

Proiektuaren zehaztapenak, eranskinak, obraren zuzendariak baimendutako aldaketak eta obrako lanen zuzendariak agindutakoa betez egingo da obrako lanen kontrola, EKTren I. parteko 7.3 artikuluan eta aplika daitekeen gainerako araudian ezarritakoari jarraikiz.

Obrako lanak egiten diren bitartean, egiaztatuko da proiektuaren baldintza-agirian ezarritako kontrolak eta haiek egiteko maiztasunak betetzen direla.

Obrako lanak egin bitartean sartutako aldaketa guztiak obraren dokumentazioan jasoko dira; alabaina, ezein kasutan ezin utziko dira bete gabe oinarritzko dokumentu honetan zehaztutako gutxieneko baldintzak.

OBRA BUKATUAREN KONTROLA

EKTren I. parteko 7.4 artikuluan adierazitako irizpideei jarraituko zaie kontrola egitean. Oinarritzko dokumentuaren atal honetan ez da amaierako probarik agintzen.

MANTENTZE- ETA KONTSERBAZIO-LANAK

6.1 taulan zehaztutako mantentze-lanak egin behar dira, adierazten den maiztasunarekin, eta, akatsik atzemanaz gero, behar diren zuzenketak egingo dira.

6.1 taula Mantentze-lanak		
	Lana	Maiztasuna
Hormak	• Horma partzialki estankotako ebakuazio-kanalek eta -zorrotek egoki funtzionatzen dutela egiaztatzea	Urtean behin ⁽¹⁾
	• Horma partzialki estankotako ganberaren aireztapen-irekidurak buxatuak ez daudela egiaztatzea	Urtean behin
	• Barneko iragazgaizpena ondo dagoela egiaztatzea	Urtean behin
Zoruak	• Drainatze- eta ebakuazio-sarearen garbitasun-egoera egiaztatzea	Urtean behin ⁽²⁾
	• Kutxatilkak garbitzea	Urtean behin ⁽²⁾
	• Xukatzeke ponpen egoera egiaztatzea, erreserbakoena barne, halakorik instalatu behar izan bada drainatzea bermatzeko	Urtean behin
Fatxadak	• Pitzaduren edo arrakalen ondorioz nonbaitetik ura sartu den begiratzea	Urtean behin
	• Estalduraren kontserbazio-egoera aztertzea: pitzadurarik, askatzerik, hezetasunik eta orbanik baden ikustea	3 urtean behin
	• Puntu berezien kontserbazio-egoera aztertzea	3 urtean behin
Estalkiak	• Orri nagusian arrakalarik eta pitzadurarik, erortzerik edo beste deformaziorik baden begiratzea	5 urtean behin
	• Ganberaren tarte-junturak edo aireztapen-irekidurak garbi dauden begiratzea	10 urtean behin
	• Hustuketa-elementuak garbitzea (isurbideak, erretenak eta gainezkabideak) eta egoki funtzionatzen duten begiratzea	Urtean behin ⁽¹⁾
Estalkiak	• Legarra berriz jartzea	Urtean behin
	• Babesgarriaren edo teilatuaren kontserbazio-egoera aztertzea	3 urtean behin
	• Puntu berezien kontserbazio-egoera aztertzea	3 urtean behin

⁽¹⁾ Horrez gain, ekaitz handiak izaten diren bakoitzean ere egin behar da.

⁽²⁾ Urtero uda amaieran egin behar da.

CTE-DB-HS 5. EVACUACIÓN DE AGUAS.

EKT honen aplikazio-esparru orokorrean jasotako eraikinetako hondakin- eta euri-urak husteko instalazioari aplikatu behar zaio atal hau. Lehendikako instalazioak handitzea, aldatzea, berriztatzea edo birgaitzea ere atal honen barnean sartzen da instalazioko hargailuen kopurua edo ahalmena handitzen den kasuan. Justifikazioari dagokionez, proiektuarekin bat ez datozen atalak, eta beraz, hauen eskakizunak ez dira garatuko. Garatuko den zatia euri uren sistema izango da.

ESKAKIZUNEN KARAKTERIZAZIOA ETA KUANTIFIKAZIOA

Instalazioaren barruan dagoen airea lokaletara pasatzen ez uzteko itxitura hidraulikoak jarri behar dira instalazioan, eta hondakin emariari eragin gabe egin behar da.

Ura husteko sareko hodiekin ahalik eta ibilbide sinpleena izan behar dute, hondakinak aise husteko distantziak eta maldak izango dituzte eta auto-garbigarriak izango dira. Saihestu egin behar da barnean ura atxikitzea.

Aurreikus daitezkeen emariak kondizio seguruetan garraiatzeko egokiak izan behar dute hodien diametroek.

Mantentze- eta konponketa-lanetarako erraz iristeko modukoak izan daitezten diseinatuko dira hodi sareak; hori dela eta, agerian jarri behar dira, edo irekiguneetan edo patio txiki erregistragarrietan. Bestela, kutxatila edo erregistroak izan behar dituzte.

Itxitura hidraulikoaren funtzionamendua eta gas mefitikoen ebakuazioa ahalbidetzen duten aireztapen sistema egokiak jarriko dira.

Instalazioa ezin da erabili hondakin- edo euri-urez besteko hondakin motak husteko.

DISEINUA

HUSTUKETAREN BALDINTZA OROKORRAK

Ura husteko instalazioa eta estolda-sare publikoak lotzen dituen putzu edo kutxatila orokorrean hustu behar dute ura eraikineko hodi biltzaileek, ahal dela grabitatez, dagokion hargunetik barrena.

Estolda-sare publikorik ez dagoenean, sistema indibidualizatu bereziak erabili behar dira: bata, hondakin-urak husteko, araztegi partikular bat duela; bestea, euri-urak lurrera husteko.

Hondakin erasokor industrialak, estolda-sarera edo arazketa-sistemara isuri baino lehen, tratatu egin behar dira.

Etxebizitzen barnean egindako beste edozein jarduera profesionalak —etxeko lanez bestelakoek— sortutako hondakinak tratatu egin behar dira alde aurretik, hartarako gailuak erabiliz, hala nola dekantazio-andelak, bereizgailuak edo neutralizazio-andelak.

URA HUSTEKO SISTEMEN KONFIGURAZIOA

Estolda-sare publiko bakarra dagoenean, kanpoko sarera irten baino lehen, sistema misto bat edo sistema banatzaile bat jarri behar da, euri-uren eta hondakin-uren amaierako lotura bat duena. Euri-uren eta hondakin-uren sareen arteko lotura egitekoan, itxitura hidrauliko bat jarri behar da tartean, batetik bestera gasak pasatzen ez uzteko eta atzitze-puntuetatik ez irteteko (esaterako, galdaratxoetatik, saretetatik edo isurbideetatik). Itxitura hori urak atzitzeko puntuei erantsia egon daiteke, edo loturan bertan jarritako amaierako sifoi bat izan daiteke.

Bi estolda-sare publiko daudenean, bata euri-urena eta bestea hondakin-urena, sistema banatzaile bat jarri behar da eta hodi-sare bakoitza bereiz lotu behar zaio dagokion kanpoko sareari.

Proiektuko eremuan, ohikoa den bezala, bi estolda-sare publiko aurkitzen dira, bata euri-urena eta bestea hondakin urena; beraz sistema banatzaile bat jarri da eraikinean. Horrez gain, euri urak berrerabili egingo direnez komunitan erabiltzeko; euri ur hauek eraikinaren hegoaldean bilduko dira lurperatuta egongo den putzu batean.

URAK HUSTEKO SAREKO ELEMENTUAK

ITXITURA HIDRAULIKOAK

Itxitura hidraulikoak izan daitezke:

- sifoi indibidualak; gailu bakoitzak berea du.
- sifoi-potoak; gailu batenak baino gehiagorenak izan daitezke.
- sifoi-isurbideak.
- sifoi-kutxatila, zeinak euri-uren eta hondakin-uren eroanbide lurperatuen loturetan baitaude.

Itxitura hidraulikoek ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- Autogarbigarriak izan behar dute, halako moldez non haiek zeharkatzen dituen urak eramango baititu solido esekiak.
- Haiei barne-gainazalek ez dituzte atxiki behar materia solidoak.
- Ez dute izan behar egoki funtzionatzea eragozten dien zati mugikorrik.
- Erraz iristeko eta manipulatzeko moduko garbiketa-erregistro bat izan behar dute.
- Itxitura hidraulikoaren gutxienezko garaierak 50 mm izan behar du erabilera jarraituentzat, eta 70 mm, berriz, erabilera etenentzat. Gehienezko garaierak 100 mm izan behar du. Gailuaren hustuketa-balbularen azpitik 60 cm edo gutxiagora egon behar du koroak. Sifoiaren diametroak hustuketa-balbularen diametroa baino handiagoa edo berdina izan behar du, edo hustuketa-adarraren diametroa baino txikiagoa edo berdina. Diametro-desberdintasunik izanez gero, emariaren norabidean handitu behar du tamainak.
- Gailuaren hustuketa-balbulatik ahalik eta hurbilen instalatu behar da, giroarekiko babesik gabeko hodi zikinaren luzera murgatzeko.
- Ez dira seriean instalatu behar, eta, beraz, tresna sanitario multzo batentzat sifoi-potoa instalatzen denean, gailuok ez dute sifoi indibidualik izan behar.
- Gailu bati baino gehiagori zerbitzua emateko itxitura hidrauliko bakarra jartzen bada, gailuen eta itxituraren artean ahalik eta distantzia txikiena utziko da.
- Sifoi-poto batek ezin die zerbitzua eman hura instalatua dagoen gela hezean ez dauden beste tresna sanitario batzuei.
- Harrasken, garbitegien eta ponpagailuen (garbigailuak eta ontzi-garbigailuak) isurbidea sifoi indibidualez egin behar da.

HUSTUKETA TXIKIKO SAREAK

Irizpide hauei jarraikiz diseinatu behar dira hustuketa txikiko sareak:

- Sarearen ibilbideak ahalik eta sinpleena izan behar du, grabitate bidezko zirkulazio naturala lortzeko, bat-bateko norabide-aldaketak saihestuz eta pieza berezi egokiak erabiliz.
- Zorrotenei lotu behar zaizkie; diseinuagatik hori posible ez denean, komun-hodiari lotzea onartzen da.
- Sifoi-pototik zorrotenera dagoen distantziak ez du 2,00 m baino handiagoa izan behar.
- Sifoi-potora ura eramaten duten adarrek 2,50 m edo gutxiagoko luzera izan behar dute, eta % 2-4 arteko malda.
- Sifoi indibiduala duten gailuetan, ezaugarri hauek izan behar dituzte:
 - Harrasketan, garbitegien, konketetan eta bidetetan, zorrotenera arteko distantziak 4,00 m izan behar du, gehienez, eta maldek % 2,5-5 bitartekoak izan behar dute.

2. Bainuontzietan eta dutxetan, maldak % 10ekoa edo txikiagoa izan behar du.
3. Komunontziek zorrotenera zuzenean hustu behar dute, edo 1,00 m edo gutxiagoko komuneko hargune-hodi baten bitartez, baldin eta hodiari ezin bazaio behar duen malda eman.

- f) Konketetan, bidetetan, bainuontzietan eta harrasketan gainezkabide bat jarri behar da.
 - g) Ez dira bi isurbide aurrez aurre jarri behar hodi komun batera sartzen.
 - h) Isurbideetatik zorrotenerako loturek ahalik eta inklinazio handiena izan behar dute; inoiz ez 45° baino txikiagoa.
 - i) Sifoi indibidualen sistema erabiltzen denean, tresna sanitarioen hustuketa-adarrak adar-hodi bati lotu behar zaizkio, eta hodi horrek zorrotenean amaitu behar du, edo, hori ezinezkoa bada, komun-hodian; burua erregistragarria izan behar du hodiak, tapoi hariztatuarekin.
 - j) Aldi baterako instalazioetan izan ezik, sareetan ez da isurbide ponpaturik jarri behar.
- Eraikinak elementu hauek dituzenez beharrezko baldintzak bete beharko dira.

ZORROTEK ETA ERRETEKAK

Zorrotenak desbideratzerik eta atzeraemangunerik gabe egin behar dira, diametro uniformeak dutela garaiera guztian, salbu, hondakin-uren zorrotenean kasuan, honelakoetan: ibilbidean oztopo gaindiezinak dituztenean, eta, komunontziak direla medio, diametro jakin bat izan behar dutenean goiko tartetatik hasita, zorrotenean gainerako zatian gaindituko ez dena.

Diametroak ez du txikitu behar uraren norabidean. Diametroa handitzea erabaki daiteke, goragoko tarterenak baino askoz ere emari handiagoak eramaten dituztenean zorrotenera.

HODI BILTZAILEAK

Hodi biltzaileak esekita edo lurperatuta jar daitezke:

- Hodi biltzaile esekiak:
 - Zorrotenak pieza bereziekin lotu behar dira, materialaren zehaztapen teknikoei jarraikiz. Lotura hori ezin da ukondo hutsen bitartez egin, ezta ukondoak sendotuak izanagatik ere.
 - Sistema mistoetan, hodi biltzailera doan euri-uren zorrotenean lotura, uretan gora dagoen hondakin-uren zorrotenean hurbilenaren loturatik 3 m-ra jarri behar da, gutxienez.
 - % 1eko malda izan behar dute, gutxienez.
 - Puntu berean ezin dira bi hodi biltzaile baino gehiago beste hodi batera sartu.
 - Tarte zuzenetan, elkargune edo akoplamendu bakoitzean, bai horizontaletan bai bertikaletan, eta orobat adarretan, material bakoitzaren arabera pieza bereziko erregistroak jarri behar dira, eta haien arteko tarteez ez dute 15 m baino handiagoak izan behar.
- Hodi biltzaile lurperatuak
 - Hodiak neurri egokiko zanga batzuetan jarri behar dira, 5.4.3 atalean ezartzen den bezala, edateko uraren banaketa-sarearen azpian.
 - % 2ko malda izan behar dute, gutxienez.
 - Banaketa-sarera doazen zorrotenean eta komun-hodien hargunean, zorrotenean oinarriko kutxatila bat jarriko da tartean —ezin da sifoi-kutxatila bat izan—.
 - Erregistroak jarriko dira, halako moldez non ondoz ondoko arteko tarteez ez baitira 15 m-tik gorakoak izango.

LOTURA-ELEMENTUAK

Sare lurperatuetan, sare bertikalen eta horizontalen arteko lotura, eta horizontaletan, haien elkargune eta adarren artekoa, hor-migoizko zimenduen gainean jarritako kutxatilekin egin behar da, ireki daitezkeen estalkiak jarrita. Kutxatilaren alde bakoitzetik

hodi biltzaile bakarra sar daiteke, halako moldez non hodi biltzaileak eta irteerak eratutako angeluak 90° baino gehiago izango baititu.

Ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- a) Zorrotenaren oinarriko kutxatilatik hasten den eroanbideak lurpean gelditu behar duenean, kutxatila hori zorrotenean oinarriko erregistroa egiteko erabili behar da; ezin da sifoi motakoa izan.
- b) Loturako kutxatiletara, gehienez, hiru hodi biltzaile sar daitezke.
- c) Erregistro-kutxatilek estalki bat izan behar dute, erraz maneiatzeko eta irekitzeko modukoa.
- d) Eraikineko putzu orokorrera hodi biltzaile bat baino gehiago heltzen bada, estradoseko kutxatila jarri behar da.
- e) Sifoi-kutxatila gisa erabili daiteke. Aireztapen-irekidura bat izan behar du, deskarga-aldetik hurbil, eta, berebat, erregistro-estalki bat, erraz maneia daitekeena, aldi behin egin beharreko garbiketarako egiteko. Trenkada bereizle bat baino gehiago izan dezake. Gailuren batek zuzenean bereizgailuan deskargatzen bada, dagokion itxura hidraulikoa izan behar du. Ahal dela, sare horizontalaren amaieran jarri behar da, putzu irtena eta hargunea baino lehen. Behar bezala justifikatzen denean izan ezik, aipatutako hondakinek zuzenean eragin dieten urak baino ezin izango dira isuri koipe-bereizgailuan (koipeak, olioak eta abar).

Instalazioaren amaieran eta hargunea baino lehen, eraikineko putzu orokorra jarri behar da.

Instalazioaren amaierako muturraren kotaren eta hargune-puntuaren kotaren arteko aldea 1 m baino handiagoa denean, urak husteko barne-sarea, batetik, eta kanpoko estolda-sarea edo arazketa-sistemak, bestetik, lotzeko elementu gisa, putzu irten bat jarri behar da.

Hodi biltzaileak garbitzeko erregistroak elkargune eta norabide-aldaketa bakoitzean jarri eta tarte zuzenetan tartekatuta behar dira.

Eraikinak beraz EKT-OD-HO-5 3.3 atalean ezartzen diren baldintzak betetzen ditu

ATZERA EZINEKO SEGURTASUN-BALBULAK

Kanpoko estolda-sareak gainezka egiten duen kasuetarako prestatuta egoteko, atzera ezineko segurtasun-balbulak instalatu behar dira, batik bat sistema mistoetan (eskuz itxeko ataka bikoitza), erregistro-eta mantentze-lanak egiteko erraz iristeko lekuetan.

INSTALAZIOAK AIREZTATZEKO AZPISISTEMAK

Aireztapen-azpisisistemak jarri behar dira bai hondakin-uren sarean, bai euri-uren sarean. Aireztapen primarioko, sekundarioko eta tertziarioko azpisisistemak, eta, orobat, aireztatze-/aireztapen-balbulen bidezko aireztapen-azpisisistemak erabili behar dira.

AIREZTAPEN PRIMARIOKO AZPISISTEMA

Aireztapen-sistema hori bakarrik izatea aski dute 7 solairu baino gutxiagoko eraikinekin, eta orobat 11 baino gutxiagokoek baldin eta zorrotena berez dagokion baino handiagoa bada eta hustuketa-adarrek 5 m baino gutxiago badituzte.

Hondakin-uren zorrotenean 1,30 m luzatu behar dute eraikinaren estalkiaren gainetik, gutxienez, baldin eta estalkia ibiltzekoa ez bada. Ibiltzekoa bada, berriz, estalkiaren zoladuraren gainetik 2,00m luzatu behar dute, gutxienez.

D.2.13 ZONA CLIMÁTICA D1

Transmitancia límite de muros de fachada y cerramientos en contacto con el terreno

$U_{lim}: 0,66 \text{ W/m}^2\text{K}$

Transmitancia límite de suelos

$U_{lim}: 0,49 \text{ W/m}^2\text{K}$

Transmitancia límite de cubiertas

$U_{lim}: 0,38 \text{ W/m}^2\text{K}$

Factor solar modificado límite de lucernarios

$F_{lim}: 0,36$

% de huecos	Transmitancia límite de huecos $U_{Hlim} \text{ W/m}^2\text{K}$				Factor solar modificado límite de huecos F_{Hlim}							
	N/NE/NO	E/O	S	SE/SO	Baja carga interna			Media, alta o muy alta carga interna				
	E/O	S	SE/SO	E/O	S	SE/SO	E/O	S	SE/SO			
de 0 a 10	3,5	3,5	3,5	3,5	-	-	-	-	-	-	-	-
de 11 a 20	3,0	3,5	3,5	3,5	-	-	-	-	-	-	-	-
de 21 a 30	2,5	2,9	3,5	3,5	-	-	-	-	-	-	-	-
de 31 a 40	2,2	2,6	3,4	3,4	-	-	-	0,54	-	0,58	-	-
de 41 a 50	2,1	2,5	3,2	3,2	-	-	-	0,45	-	0,49	-	-
de 51 a 60	1,9	2,3	3,0	3,0	-	-	-	0,40	0,57	0,44	-	-

ERAIKINEKO ESPAZIOEN SAILKAPENA

Aurreko ataletan ikusi den bezala, eraikinak baditu hiru erabilera nagusi; erabilera publikoa, erabilera administratiboa eta erabilera industrial. Oso garrantzitsua da eraikin batean hone-lako hiru erabilera txertatzerakoan, espazioen sailkapen on bat egitea, ez soilik sute sektoreak definitzeko, baizik eta, eraikinaren energia eskaria murrizteko.

Izan ere, nahiz eta hiru erabilera nagusi hauek eraikin bakar baten bizi, hauen funtzionamendu oso ezberdina izan daiteke, funtzionamendu ordutegia, okupazio kopurua... Horrez gain, lokal barnetan gertatzen diren erabilerak ere asko eragin dezakete, barne karga handiak ala txikiak sortuz.

Beraz, proiektuko kasuan, aktibitate industrial ematen diren estantziak daudenez barne karga altuko estantziak izango dira, makinariak gain, aktibitate fisiko bat egongo delako. Hauetaz gain, klimatizatutako estantziak ditugu, non barne karga baxua den. Arrazoi horregatik erabaki zen espazio txiki hauek klimatizatzea, eta aktibitate fisikoa ematen zen guneeetan aireztapen mekanikoa jarri soilik. Ondorengo irudian, larroxek klimatizatutako estantziak ageri dira, eta urdinez aldez aireztapen mekanikoa duten lokalak; beraz, gainontzeko guztia bizitzeko ez diren esparruak izango dira. Beraz, kanpo itxituraz gain, barne itxiturak garrantzi handia edukiko du.

INGURATZAILE TERMIKOAREN DEFINITZEA KANPOAREKIN KONTAKTUAN DAUDEN ITXITURAK

Elementua	Materia	Rsi	e (m)	λ	R	Rse	Rt	U	Ulim
SABAI 1									
	Legarra		0,07	2	0,035				
	Geotextila		0,008	0,05	0,16				
	XPS Extruido		0,06	0,034	1,765				
	Geotextila		0,008	0,05	0,16				
	Iragazgaitza		0,0035	0,23	0,015				
	Iragazgaitza		0,0035	0,23	0,015				
	Nibelatzeko morteroa		0,1	0,3	0,333				
	Forjatua		0,12	1,121	0,107				
		0,1			2,59	0,04	2,73	0,36	0,38
SABAI 2									
	Legarra		0,07	2	0,035				
	Geotextila		0,008	0,05	0,16				
	XPS Extruido		0,06	0,034	1,765				
	Geotextila		0,008	0,05	0,16				
	Iragazgaitza		0,0035	0,23	0,015				
	Iragazgaitza		0,0035	0,23	0,015				
	Nibelatzeko morteroa		0,1	0,3	0,333				
	Forjatua		0,12	1,121	0,107				
	Aire ganbara		0,6	2,4	0,16				
	Igeltsu kartoia		0,0125	0,25	0,05				
		0,1			2,77	0,04	2,91	0,34	0,38
FATXADA 1									
	Txapa grekatua		0,05	-	-				
	Igeltsu kartoia		0,0125	0,25	0,05				
	Lana mineral		0,04	0,04	0,998				
	Adreilu huts bikoitza		0,115	0,212	0,17				
	XPS Extruido		0,05	0,034	1,471				
	Aire ganbara		0,1	-	0,19				
	Perf. metal. Minionda		-	-	-				
		0,13			2,88	0,04	3,05	0,32	0,66

BARNE BANAKETAK


Materia	Rsi	e (m)	λ	R	Rse	Rt	Up	b	U	Ulim
BANAKETA 1										
Perf. metal. Minionda		0,018	-	-						
Igeltsu kartoia		0,015	0,25	0,06						
Igeltsu kartoia		0,015	0,25	0,06						
Lana mineral		0,05	0,031	1,613						
Igeltsu kartoia		0,015	0,25	0,06						
Igeltsu kartoia		0,015	0,25	0,06						
Perf. metal. Minionda		0,018	-	-						
	0,13			1,853	0,13	2,113	0,47	0,81	0,38	0,85
BANAKETA 2										
Perf. metal. Minionda		0,018	-	-						
Igeltsu kartoia		0,015	0,25	0,06						
Igeltsu kartoia		0,015	0,25	0,06						
Lana mineral		0,07	0,031	2,25						
Igeltsu kartoia		0,015	0,25	0,06						
Igeltsu kartoia		0,015	0,25	0,06						
Perf. metal. Minionda		0,018	-	-						
	0,13			2,49	0,13	2,75	0,36	0,81	0,29	0,85
BANAKETA 3										
Perf. metal. Minionda		0,01	-	-						
Igeltsu kartoia		0,015	0,25	0,06						
Lana mineral		0,05	0,031	1,613						
Igeltsu kartoia		0,015	0,25	0,06						
Perf. metal. Minionda		0,018	-	-						
	0,13			1,73	0,13	1,99	0,50	0,81	0,40	0,85
BANAKETA 4										
Mikrozementozko akabera		0,02	-	-						
Recreado de mortero		0,05	0,41	0,122						
Lana mineral		0,05	0,031	1,613						
Forjatua		0,17	1,121	0,152						
	0,13			1,89	0,13	2,15	0,46	0,81	0,37	0,85
BANAKETA 5										
Policarb. alveolar 40mm		0,04					0,82	0,81	0,66	0,85

KONDENTSAZIOEN KONPROBAKETA SABAI 1

Capital de provincia: San Sebastián

Condiciones exteriores para el mes de Enero: $T = 7,9 \text{ }^\circ\text{C}$, HR = 76 %

Condiciones interiores: $T = 20 \text{ }^\circ\text{C}$, HR = 55 %




SABAI 2 (Higrometria 4 dugun estantzietan)

Capital de provincia: San Sebastián

Condiciones exteriores para el mes de Enero: $T = 7,9 \text{ }^\circ\text{C}$, HR = 76 %

Condiciones interiores: $T = 20 \text{ }^\circ\text{C}$, HR = 61 %




FATXADA

Capital de provincia: San Sebastián

Condiciones exteriores para el mes de Enero: $T = 7,9 \text{ }^\circ\text{C}$, HR = 76 %

Condiciones interiores: $T = 20 \text{ }^\circ\text{C}$, HR = 61 %



HUTSUNEAK



SGGPLANITHERM S_ Beira bikoitza
Transmitantzia U: 1,8 m².K/W
Beiraren faktore solarra (g): 0,82

4 - GAINERAKO ARAUTEGIA.

4.1: 68/2000 DEKTRETUA

68/ 2000 DEKRETUA. HIRI INGURUNEEN ESPAZIO PUBLIKOEN, ERAIKINEN ETA INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO SISTEMEN IRISGARRITASUN BALDINTZEI BURUZKO ARAU TEKNIKOAK.

Dekretu hau hurrengo eranskinez osatua dago. Eranskin hauetako arauak betetzeak eraikinei eskatzen zaizkien irisgarritasun baldintzak gainditzea ondorioztatzen du:

I. ERANSKINA: PARAMETRO ANTROPOMETRIKOAK.

II. ERANSKINA: HIRI-INGURUNEKO IRISGARRITASUN-BALDINTZA TEKNIKOAK

III. ERANSKINA: ERAIKINETAKO IRISGARRITASUN-BALDINTZA TEKNIKOAK

IV. ERANSKINA: KOMUNIKAZIORAKO IRISGARRITASUNA

II. ERANSKINA. HIRI-INGURUNEKO IRISGARRITASUN-BALDINTZA TEKNIKOAK

3. ARTIKULUA: URBANIZAZIO-ELEMENTUAK

3.2. Oinezkoentzako ibilbideak.

1.- Oinezkoen pasaerara edo oinezkoen eta ibilgailuen pasaera mistora destinatutako erabilera komunitarioko ibilbide publiko edo pribatuen trazadura eta diseinua irisgarritasuna bermatzeko moduan egingo da.

2.- Diseinuaren eta trazaduraren zehazpen teknikoak ondokoak izango dira:

- Oztoporik gabeko gutxieneko igarotze-zabalera 2,00 m-koa izango da
- Ibilbidearen edozein puntutan, igarotze-altuera librea 2,20 m-koa izango da gutxienez.
- Luzetarako aldapa %6koa edo txikiagoa izango da.
- Zeharkako aldapa %2koa izango da gehienez; %1,5-ekoa gomendatzen da.
- Espaloien kasuan, zintarren gehieneko altuera 12 cm-koa izango da eta 1 cm-ko gehieneko erradioko harri biribildukoa edota 2 cm-ko alakatua izatea gomendatzen da.

3.- Salbuespen gisa, oinezkoentzako ibilbideen eraikuntzan eremuari lotutako hirigintza-araudiarekiko edo sektorialarekiko kontraesanak agertzen direnean edota arestian adierazitako zehazpen guztiak lurraren topografia dela eta gauzatzeko zailak direnean, irisgarritasuna hobekien bermatuko duten neurriak hartuko dira. Kasu hauetan, hartutako irtenbidea justifikatu egin beharko da lizentzia eman aurreko udal-zerbitzuen txosten batean. Irisgarritasunerako Euskal Kontseilua jakinaren gainean egon dadin, espediente horiek helaraziko zaizkio.

3.3. Zoladurak.

1.- Oinezkoentzako ibilbideetako zoladura gogorak irristakaitzak izango dira, piezen arteko irtenunerik gabe. Zoladura bigunak berriz, gurril-aulkiak, makilak eta abar ez mugitzeko eta ez hondoratzeko bezain trinkoak izango dira. Ezaugarri horiek Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren Aginduz definituko dira.

2.- Eskailera, arrapala, lur azpiko pasagune, metroko sarbide eta abarren kasuan, desnibelak, sakonuneak eta kota-aldaketak

seinaleztatzeko, sarbide eta helduera alde guztietan 1 m-ko edo gehiagoko zabalera baldosaren edo erabili beharreko materialaren moduluaren arabera izango duten seinaleztapen-marrak ipiniko dira. Seinaleztapen-marra horietan zoladurak ehundura eta kolore desberdina izango du (inguruko gainerako zoladurarekin ondo kontrastatuta) eta, horrela, informazioa eta abisua emateko funtzio bikoitza beteko du. Bidearen noranzkoarekin elkarzut geratuko dira eta oinezkoentzako ibilbide osoa hartuko dute, komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean adierazitakoari jarraiki.

3.- Oinezkoentzako ibilbide baten diseinuan irtenune edo kolore desberdineko zoladurak jartzen direnean, diseinu horretarako jarraibide orokor gisa ondokoak hartuko dira:

- Oinezkoentzako ibilbidearen zatirik handiena barne hartuko duen zoladura bat nagusi moduan uztea.
- Zoladuraren gainerakoa ibilbidearen ardatzean uztea, ikusteko arazoak dituzten pertsonak zuzentzeko eta orientatzeko gida moduan baliagarria izan dadin.

4.- Oinezkoentzako ibilbide eta pasaguneetan kokatutako burdinsareak eta erregistroak inguruko zoladurarekin berdinduta egongo dira eta material irristakaitzekoak izango dira (bai eta bustita daudenean ere).

3.4.- Ibilgailuentzako ibiak.

1.- Zeharkatzen dituzten oinezkoentzako ibilbideak, arau hauetan (3.2 atalean) onartutakoak baino luzetarako eta zeharkako aldapa handiagorik ez izateko moduan diseinatuko dira.

2.- Galtzadatik aparkaleku edo garajera dagoen distantziaren edota bien arteko desnibelaren ondorioz adierazitako moduan diseinatatu ezin badira, 1,50 m-ko gutxieneko espaloi-zabalera bat geratzeko moduan (eranskin honen 3.2 atalean onartutako aldapekin) formalizatuko dira.

3.- Espaloia 1,50 m-koa izanik ibia egin ezin bada, zintarria beheratu egingo da.

3.5.- Oinezkoentzako pasaguneak.

1.- Pertsonak igartzeko erreserbatutako galtzadetako espazioei deituko diegu oinezkoentzako pasagune.

2.- Oinezkoentzako ibilbidean pasagune hauek «seinaleztapen-marra» bidez seinaleztatuko dira. Marra horrek 1 m-ko edo gehiagoko zabalera izango du erabili beharreko baldosa edo zoladuraren tamainaren arabera eta oinezkoentzako pasagunearen ardatzean ipiniko da.

3.- Pasagunea bertikalki (argizko seinalea), horizontalki (soinu-bandak) edo kolore bidez (banda txuri eta gorriak) seinaleztatzea gomendatzen da, gurutzagune arriskutsuko pasaguneetan eta/edo pasagune altuetan batez ere.

4.- Oinezkoentzako ibilbide edo espaloien eta galtzadaren artean desnibela dagoenean, ondoko ezaugarriak izango dituzten oinezkoentzako ibiak jarriko dira:

1.a Gehienez ere %8 eta %1,5ekoak izango diren luzetarako eta zeharkako aldapak -hurrenez hurren- izango dituzten plano inklinatuen bidez formalizatuko dira. Horrela, ibiak eraginpean hartu gabeko 1,50 m-ko espaloi-zabalera bat geratuko da gutxienez.

2.a Beren zabalera, galtzadaren kotan, oinezkoentzako pasagunearena izango da gutxienez.

3.a Oinezkoentzako ibi osoaren zoladura, bere perimetro osoan metro bat zabaldua, seinaleztapen-marraren berdina izango da komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. Eranskinean adierazitakoari jarraiki.

5.— Ahal den guztietan, oinezkoa zirkulaziorako erreira hurbilduko duten oinezkoentzako ibiak egingo dira. Horrela, ibia aparkatzeko eremua hartuta egingo da, ibilgailuen zirkulazioa kaltetu gabe. Ibi hauek bereziki egokiak dira kaleen gurutzaguneetan egiteko.

6.— Aurreko ezaugarriak izango dituen ibi bat formalizatzeko behar adinako espaziorik ez duten espaloi estuetan, espaloia galtzadaren kotara beheratuko da oinezkoentzako pasagunearen zabalera osoan (kota hori galtzadak eta zintarriak topo egiten dutenekoa izanik) espaloia luzetarako plano inklinatuen bidez. Luzetarako aldapa gehienez ere %8koa izango da eta zeharkakoa berriz, %1,5koa.

7.— Nolanahi ere, oinezkoentzako ibilbidetik galtzadara igarotzea errazteaz gain zirkulazioaren abiadura murriztu nahi bada, galtzadaren kota espaloia kotaraino igo ahal izango da oinezkoentzako pasaguneen zabalera osoan. Era berean, uren hustuketa eta ikusmen urritasuna duten pertsonen giltzadaren hasiera ezagutzea ahalbidetuko dien ehundura-bereizketa modu egoki batean ebatziko dira.

8.— Desnibelik ez dagoenean, pasagunea ibilgailuek ez aparkatzeko moduan egingo da.

9.— Oinezkoek pasagunean egin beharreko tartean ibilgailuentzako galtzaden erdiko irlatxo bat zeharkatu behar bada, irlatxo hau galtzaden maila berean egongo da (oinezkoentzako pasagunearen zabalera berdinarekin) eta bere zoladura ibiarena bezalakoa izango da.

10.— Irlatxoa bi noranzko eta hiru errei edo gehiagoko bideetan badago, 2,00 m-ko gutxieneko hondoa izango du mugikortasun urria duen pertsona bati ibilgailuen zirkulaziotik babestuta egotea ahalbidetzeko.

11.— Oinezkoen pasaera erregulatzeko semafororik izanez gero, honek soinuak seinalea izango du komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. Eranskinean adierazitakoari jarraiki.

12.— Oinezkoentzako pasagunearen berariazko seinaleztapenari dagokionez, seinaleztapen-marraren zoladura protuberantzia edo erroak izango dituzten baldosen edo bestelako materialen bidez egingo da, 25 mm-ko diametroa, 6 mm-ko altuera eta beren erdiguneen arteko 67 mm-ko bereizketa izango dutenak hain zuzen ere. Baldosa horiek irristakaitzak eta kolorez kontrastatuak izango dira eta ezaugarri hauek gordetzeko behar bezala mantenduko dira.

13.— Oinezkoentzako pasaguneetan material labainkorrek erabiltzea saihestuko da.

3.6. Parkeak, lorategiak, plazak eta espazio libre publikoak.

1.- Parkeek, lorategiek, plazek eta espazio libre publikoek eranskin honen irizpideei egokituta egon beharko dute.

2.- 2,00 m-ko gutxieneko zabalera izango duten bide edo bidexkak antolatuko dira, ezin deformatuzko eta material irristakaitzez zolatuak eta ehundura desberdina eta gainerako zoladurarekin ondo kontrastatuak izango dutenak. Horretarako harri, lur, soropil eta abarren ehundurak aprobetxatuko dira.

3.- Desnibel guztiak oinezkoentzako ibilbideen bidez (eranskin honen 3.2 puntuaren arabera) edo 3.8 puntu jasotako ezauga-

rriak dituzten arrapalen bidez gaindituko dira. Osagarri gisa, eskailerak jarri ahal izango dira.

4.- Plataforma altuetan edo 40 cm-tik gorako desnibeletan (hala nola terrazetan, jolas-eremuetan eta abar) beharrezkoak diren babes-elementu etengabeak ipiniko dira.

5.- Zuhaitz landatuen adarrak edo enbor okerrak ez dira oinezkoentzako ibilbideetara iritsiko 2,20 m-tik beherako altueran.

6.- Hiri-altzariak hala nola iturriak, ur-zirriak eta abar oinezkoentzako ibilbidean zehar lerrokatuta antolatzea gomendatzen da, era honetan, beren sonoritatea kontuan hartuta, ikusmen urritasuna duten pertsonen orientazioa eta desplazamendua erraz daitezten. Halaber, eranskin honen 4. artikuluko («Hiri-altzariak») zehazpenak betetzea gomendatzen da.

7.- Ukipeen-planoak edo ukipeen/soinuak jarriko dira komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezartzen diren ezaugarriekin eta bertan ezarritako espazio libre publikoetan.

3.7. Eskailerak.

Eskaileren diseinuak eta trazadurak mugikortasun urria duten pertsonen erabilera publikoko espazio libreetarako irisgarritasuna ahalbidetu beharko diete eta ondoko parametroei lotuko zaizkie:

1.- Eskailerak zuzentzaile zuzenekoak izango dira. Mailagainaren dimentsioa ezein puntutan 35 cm-tik beherakoa ez denean, «abaniko» gisakoak baimenduko dira.

2.- Gutxieneko zabalera librea 2,00 m-koa izango da.

3.- Eskailera guztiak bi alboetarako eskubanda bikoitz batez hornituko dira, 3.10 puntuari adierazi bezala. Eskaileren zabalera 2,40 m-tik gorakoa bada, horrez gain bitarteko eskubandak jarriko dira. Alboetako eskubandak eskailburuen (bai eta bitartekoak ere) ibilbidearen ahalik eta zatirik handienean luzatuko dira.

4.- Mailagaina material irristakaitzez egingo da, kontramailan irtenunerik utzi gabe. Bere gutxieneko dimentsioa 35 cm-koa izango da.

5.- Kontramailak 15 cm-ko gehiengo dimentsioa izango du.

6.- Eskailera-atal bakoitzeko maila-kopurua 3koa izango da gutxienez eta 12koa gehienez. Mailak ezingo dira gainjarri.

7.- Mailen ertz libreak 3 cm-ko irtenune batez babestuta egongo dira.

8.- Eskaileren atalik baxuenaren arku barnera gutxienez 2,20 m-ko altuera bateraino itxi beharko da.

9.- Bitarteko eskailburuek 1,50 m-ko luzera izango dute gutxienez.

10.- Eskaileren mailetan eta eskailburuetan urik gera ez dadin, ura husteko aldapa %1,5koa izango da gehienez ere.

11.- Eskailerapeko argi librearen gutxieneko altuera 2,20 m-koa izango da.

12.- Eskaileretarako sarbideetan ukipeen-seinaleak jarriko dira, komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezarri-

tako ezaugarriekin.

13.- Kontramailarik gabeko eskailerak debekatuta daude.

14.- Ahal den neurrian, distirak eta itsualdiak sortzen dituzten mailen zoladurak saihestuko dira.

15.- Mailen ertzetan, beren luzera osoan eta mailaginean sartuta, banda txiki batzuk ipiniko dira, irristakaitzak (lehorrean nahiz bustian). Banda hauek 5 cm-tik 10-era bitarteko zabalera izango dute, ehundura eta kolorazio desberdinekoak izango dira eta mailaren gainerako zoladurarekin ondo kontrastatuta egongo dira.

16.- Ibilbideetan «seinaleztapen-marra» bidez seinaleztatuko dira, komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean zehaztu bezala.

3.8. Arrapalak.

Arrapalen diseinuak eta trazadurak, oinezkoentzako ibilbideenak tramo desnibel eta aldapa handiagoak gainditzea ahalbidetuko dute. Hondoko parametroak hartu beharko dira kontuan:

- Gutxieneko zabalera 2 m-koa izango da.
- Baimendutako gehieneko luzetarako aldapa %8koa izango da.
- Gehieneko zeharkako aldapa %1,5- ekoa izango da.
- Eskailbururik gabeko atalaren gehieneko luzera 10 m-koa izango da.
- Bitarteko eskailburuek 2 m-ko gutxieneko luzera.
- Bi alboetan eskubandaz hornituko dira eta beren ezaugarriak eranskin honen 3.10 puntuan adierazitakoak izango dira.
- Arrapaleko alboak zintarri batzuekin edo gutxienez 5 cm-ko (arrapalaren zoladuraren akaberatik neurtuta) alboko babes baten bidez babestuko dira makilak eta gurpilak ibilbidean zehar ustekabean atera ez daitezten.
- Zoladura irristakaitza izango da.
- Ibilbideetan «seinaleztapen-marra» bidez seinaleztatuko dira, komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV eranskinean adierazi bezala.

3.9.- Eskailera mekanikoak, tapiz pirikariak eta igogailuak.

Espazio libre publikoetan eskailera mekanikoak, tapiz pirikariak edo igogailuak instalatzen direnean, irisgarritasunari eta seinaleztapenari dagokionez eranskin honetako arauak egokituko zaizkie eta eraikuntzari dagokionez berriz, III. Eranskineko («Eraikinetako irisgarritasun-baldintza teknikoak») arauak.

3.10. Eskubandak.

1.- Eskubandak lekualdatzeko edo jarrera jakin batean egoteko laguntza gisa jartzen diren euskarrielementuak dira.

2.- Eskubandak diseinatu eta jartzean kontuan hartu beharreko ezaugarri nagusiak ondokoak dira:

- Diseinua anatomikoa izango da eta eskuari egokitzeko moduko forma izango du. 4 cm-tik 5era bitarteko diametroko sekzio zirkularra gomendatzen da.
- Finkapena, eskubandaren behealdean, irmoa izango da eta ez du heltzeko oztoporik izango. Horrela, beste edozein elementurekin gutxienez 4 cm-ko distantzia batera bereizita egongo da behealdean (plano

horizontalean neurtua) eta edozein oztoporekiko gutxienez 10 cm-ra goialdean (plano bertikalean neurtua).

- Ez dira inon txertatuta ipiniko.
- Eskubandak bikoitzak izango dira eta, eskaileren kasuan, goikoa bozeletik 100+5 cm-ko altuera batean eta behekoa 70+5 cm-ko altuera batean ipiniko dira.
- Eskailera-atal eta arrapalen hasiera eta amaiera eskuz antzemateko adierazle gisa, eskubandak 45 cm-tan luzatuko dira beren ertzetan, betiere lehentasuna duten oinezkoentzako ibilbideen zeharkako Inbasiorik gertatzen ez bada. Horrela, eskailera-atal edo arrapala osoaren estaldura bermatuko da.
- Krokadurak saihesteko moduan errematatuko dira.
- Beren koloreak kontrastea egingo du arrapalen eta eskaileren gainerako elementuekin. Eskaileretako eta arrapaleko eskubandetan orientazio-plakak ipiniko dira komunikaziorako

4. ARTIKULUA. HIRI-ALTZARIAK

4.2. Hiri-altzariak instalatzeko arauak.

4.2.1. Arau orokorrak.

1.- Erabilera publikoko espazio libreetan aldi baterako edo iraunkortasun-izaeraz instalatzen den edozein hirialtzari irisgarritasuna ez eragozteko moduan jarriko da.

2.- Instalatzen diren erabilera publikoko elementuak (hala nola telefono-kabinak edo telefono-hormakonkak, iturriak, bankuak, kutxazainak, markesinak, mostradoreak, kanpoko erakusmahaiak, kioskoak edo antzekoak) irisgarritasun-zailtasunak dituzten pertsonak erabiltzeko moduan diseinatu eta kokatuko dira.

3.- Fatxadatik irteten diren edo oinezkoentzako ibilbide edo espazio bat oztopatzen duten elementu finko edo mugikorren (hala nola markesinak, kioskoak, olanak, seinaleak edo antzekoak) kasuan, beren beheko ertza 2,20 m-tik gorako altueran jarriko da.

4.- 2,20 m-tik beherako altueran kokatutako edozein elementu finko edo mugikor lurreraino iritsiko da oinplano-proiekzioerik handienarekin.

5.- Hiri-altzariak oinezkoentzako ibilbidearen luzetarako noranzkoan lerrotatuta antolatuko dira. Espalioen kasuan, kanpoko ertzean jarriko dira, inoiz ez fatxadaren ondoan eta, kasu guztietan, oinezkoentzako ibilbidearen zabalera librea 2,00 m-koa izango da gutxienez. Hektarea bakoitzeko 12 edo etxebizitza gutxiagoko dentsitatea duten urbanizazioetako espalioetan 1,50 m-koa izango da gutxienez.

6.- Ezingo dira oinezkoentzako ibian eta pasagunean kokatu, ez eta gurutzaguneetan ere oinezkoentzako ibilbideen elkarguneko azalera komun osoan. Oinezkoentzako pasaguneen alboko mugetan kokatzea gomendatzen da, helburu bikoitzarekin: alde batetik, oinezkoentzako pasagunearen zabalera eta argi librea mugatzeko eta, bestetik, pasagunea ibilgailuez babesteko.

7.- Erabilera publikoko espazio libreetan edo oinezkoentzako ibilbideen ondoan instalatutako jarduera iraunkorrek edo aldi baterakoek (hala nola kioskoak, salmenta edo erakusketarako postuek, ostalaritzako terrazek edo antzekoak) ez dute inoiz oinezkoentzako ibilbidea oztopatuko eta irisgarritasuna kontuan hartuta diseinatu beharko dira.

8.- Elementu garden guztiek bi seinaleztapen-marra horizontal izango dituzte, 20 cm-ko zabalera-koak, bata 1,50 m-ko eta bestea

0,90eko altueran jarriak (beheko ertzetik lurreraino neurtuta), ikusmen-urritasuna duten pertsonak antzeman ditzaten.

4.2.2. Arau partikularrak.

4.2.2.7. Bankuak.

Erabilera publikoko espazio libreetako bankuek 40cm-tik 50era bitarteko altueran izango dute eserlekua. Gainera, bizkarraldea eta beso-euskarriak izango dituzte eserlekuaren mailatik 20-25 cm-ko altueran. Batzuk jartzen direnean, elkarren arteko 50 m-ko gehieneko distantzia batean instalatuko dira. Beste mota batzuetako bankuak erabiltzea ere baimenduko da, betiere aurrekoen osagarri gisa eta altxatzea eta esertzea errazteko baldintza ergonomikoei egokituta.

III. ERANSKINA: ERAIKINETAKO IRISGARRITASUN-BALDINTZA TEKNIKOAK

4. ARTIKULUA: ERAIKINAREN BARRUKO SARBIDEA

4.1. Sarbideak.

1.- Eranskin honen 1. artikuluan aipatutako eraikinen sarbideek eraikinen barrualderako irisgarritasuna bermatu beharko dute eta kanpoko zoladuraren maila berean egongo dira.

2.- Mailak eta eskailerak, eranskin honetan ezarritako baldintzak beteko dituzten arrapalen bidez osatu beharko dira.

3.- Eraikin eta instalazioen multzoen kasuan, oinezkoentzako pasaguneek eta elkarren arteko komunikazioek hiri-ingurunekeo irisgarritasun-baldintza teknikoari buruzko II. eranskinean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

4.- Eraikinean sartzeko eraikuntzarik gabeko eremu bat zeharkatu behar izanez gero, kontuan izan beharko da korridore, harrerape eta abarretatik aterainoko sarbideak bi aldeetan jarritako argizko kontzekin seinalezatu beharko direla iluntasunean eta korridoreetarako ezarritako zabalerekin mugatuta egon dadin.

5.- Eraikinean sartzeko atea hobeto ikusi ahal izateko, fatxadaren gainerakotik nabarmenduko da kontraste kromatikoaren bidez. Gainera, argiztapen egokia izango du.

6.- Eraikinaren sarrera nagusian, sarbide-atearen eskuinean edo atezain automatikoaren ondoan, lurretik 1,50 m-tik 1,60ra bitarteko altueran, atariaren zenbakiaren eta/edo letraren berri emango duen kartel bat ipiniko da.

7.- Eraikin publikoen kasuan, beren erabileraren berri ere emango da. Informaziorako kartel horiek komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezarritako baldintzak beteko dituzte.

8.- Komunikatu, deitu edo irekitzeko sistemak -edozein izanik ere- atearen ondoan kokatuko dira, ezkerrean eta 0,90 m-tik 1,20ra bitarteko altueran. Sistema hauek manipulatzeko zailtasunak dituzten pertsonak erabiltzeko modukoak izango dira eta komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. Eranskinean ezarritakoari egokituko zaizkio.

9.- Atea atezain automatiko bidez irekitzeko sistemak (sakagailu bidez, txartela sartuta edo beste antzeko mekanismo baten bidez eragiten direnak) 0,90 m-tik 1,20ra bitartean kokatuta egongo dira eta atearen edo burdin langaren se-

gurtasun-sistema askatzeko eta ireki eta ixteko maniobra osatzeko beharrezkoak diren baliabide teknikoak izango dituzte.

10.- Gainazal beiradunek, ate beiradunei buruzko ondorengo puntuan zehaztutakoa beteko dute.

4.1.1. Kanpoko sarbide-ateak.

1.- Atearen bi aldeetan atearen orriek hartuko ez duten espazio libre horizontal bat egongo da. 1,80 m-ko diametroko oztoporik gabeko zirkulu bat egitea ahalbidetuko duena. Etxebizitzetan 1,50 m-ko diametroa baimenduko da.

2.- Irekiera-angelua, topeak erabilia ere, 90°-koa izango da gutxienez.

3.- Igarotze-tartearen gutxieneko

4.- Bi orriko ateak erabiltzen direnean, normalean irekitzen denak 0,90 m-ko zabalera pasagune libre bat utziko du.

5.- Itxiera automatikoko malguki eta gailuak behar dituzten ateen kasuan, atea irekitzeko gehieneko erresistentzia 30 newton-dik gorakoa ez izateko moduan instalatuko dira.

6.- Haize-babes gisako ateen kasuan ere aurreko baldintzak bete beharko dira.

4.1.1.3. Ate beiradunak.

1.- Ate beiradunak segurtasun-beiraz egingo dira. 0,40 m-ko altuerako zokalo babesle bat eta 20 cm-ko zabalera eta atearen gainerakoarekiko eta ateondoaren hondoarekiko kontraste kromatiko nabarmena izango duten bi seinaleztapen-marra horizontal izango dituzte. Marra hauen beheko ertzetatik lurrera 1,50 eta 0,90 m-ko distantzia egongo da hurrenez hurren.

2.- Paramentu beiradun batean kokatuta badaude, paramentu honetatik nabarmenduko dira ikusmenarazoak saihesteko.

4.1.1.5. Kisketak, eskulekuak eta beste antzeko manipulazio-elementuak.

1.- Kisketak forma ergonomikoekin diseinatuko dira manipulazioan eta/edo mugikortasunean zailtasunak dituzten pertsonak eragin ahal izan ditzaten.

2.- Ahal bada, beren sekzioa zirkularra izango da, forma leun eta borobildukoa, kontusioak eta urratuak saihesteko. «Pomo» motakoak bereziki debekatuta egongo dira.

3.- Eskulekuak, atea irekitzeko maniobrarako laguntza elementu gisa, ahal bada horizontalki jarriko dira lurretik 0,90 m-tik 1,20ra bitarteko altueran. Bertikalki jarri gero, eragiteko eremuak 0,90 m-tik 1,20ra bitarteko tartea hartu beharko du gutxienez (lurretik neurtuta) eta orriaren behealdean 40 cm-ko tarte bat utzi beharko du gurpil-aulkia trabatu ez dadin. Beren diseinua ergonomikoa izango da eta, ahal bada, sekzio zirkularrak izango dituzte.

4.- Kisketak eta eskulekuak atearen planotik 4 cm-tara bereziko dira.

4.2. Ateondoak

Ondoko ezaugarriak hartuko dira kontuan:

- Forma erregularrekin diseinatuko dira -beharrezkoak ez diren pilare edo zutabeak saihestuta- eta altzariak edo ate-ekorketa bezalako oztoporik gabeko gutxienez 1,80 m-ko diametroko (oro har, 1,50 m koa etxebizitza-erakinetan) zirkulu bat egiteko moduko dimentsioak izango dituzte.

- Ahal bada, argiztapena iraunkorra izango da, itzalik gabe eta behar adinako intentsitatearekin (300 luxekoa gutxienez). Horrela, kanpotik barrurako eta alderantzizko bidean sor daitezkeen itsualdiak saihestuko dira.

- Zoruen eta hormen arteko kontraste kromatiko egokia kontuan hartuta diseinatu eta egingo dira.

- Zoladurak gogorak izango dira, irristakaitzak (lehorrean zein bustian), etengabeak eta lauak.

- Etengailuak erraz aurkitzeko modukoak izango dira eta kontraste kromatiko ona izango dute instalatuta daudeneko paramentua- rekin. Gainera, manipulazio-arazoak dituzten pertsonen eragiteko moduan diseinatuta egongo den argi bat izango dute identifikatu ahal izateko. Lurretik 0,90 m-tik 1,20ra bitarteko altueran instalatuko dira.

- Altzariak, mostradoreak eta leihatilak 8. Artikuluan («Altzariak») ezarritakoa beteko dute.

- Ateondoetan planoak eta maketak jarriko dira komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. Eranskinean ezarritako ezaugarriekin eta bertan ezarritako eraikinetan.

5. ARTIKULUA: BARNE KOMUNIKAZIOAK

5.1. Baldintza orokorrak.

1.- Hormetako izkinak eta ertzak ertz bizirik ez izatea eta paramentuaren amaiera seinaleztatzeko erremateak izatea gomendatzen da.

2.- Eraikin barruko ibilbide nagusiek ez dute oztoporik izango 2,20 m-ko altuerako eta 1,80 m-ko azalerako sekzioa izango duen prisma batean (ateak salbuetsita) eta bertan ez da altzaririk, erradiadorerik, su itzalgailurik edo beste antzeko elementurik egongo. Etxe bizitza eraikinen kasuan zabalera 1,50 m-ra murriztu ahal izango da.

3.- Zoladurak gogorak, irristakaitzak, etengabeak eta lauak izango dira eta toles edo zimurrik ez sortzeko moduan jarriko dira. Gainera, ertzak ez dira irisgarritasunerako eragozpen izango.

4.- Norabideko marra-gidak ipiniko dira, komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezartzen diren ezaugarriekin eta bertan ezarritako eraikinetan.

5.- 100 m-tik gorako oinezkoentzako ibilbideak izan ditzaketen azalera handiko eraikinetan (eraikuntzarik gabeko espazioetako zerbitzuak barne hartuta), ibiltzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat gurgil-aulkiak edo bestelako garrario-elementuak egongo dira 100 pertsonako 1-eko proportzioan gutxi gorabehera (aurreikusitako gehieneko okupazioa kontuan hartuta).

5.2. Komunikazio horizontalak.

1.- Komunikazio horizontaleko espazioek, pertsona guztiei lekualdatzea eta maniobratzea ahalbidetuko dieten ezaugarriak izango dituzte.

2.- Ezaugarriak izango dituzten arrapalen bidez gainditu beharko dira.

3.- Zoruaren eta hormen koloreak komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean islatutako ezaugarrien arabera kontrastatuko dira.

5.2.1. Korridoreak.

1.- Eraikinetako oro har korridore nagusietan, gutxienezko igarotze-zabalera libre 1,80 m-koa izango da; etxebizitza-erakinetako elementu komunetan berriz, 1,50 m-koa izango da.

2.- Eraikinetako oro har, aparkalekuak barne bigarren mailako korridoreek eta etxebizitza-erakinetako instalazio, biltegi, kamarote, trasteleku eta garajeetan sartzeko korridoreek 1,20 m-ko gutxienezko igarotze-zabalera libre izango dute. Horrez gain, 1,50m-ko elkartzeko eta biratzeko azalerak antolatuko dira 18 m-ko gehieneko bereizketarekin eta, beti, korridorearen hasieran eta amaieran.

3.- Korridore edo antzekoetan altzariak jarri behar direnean, denak alde berean kokatu beharko dira.

4.- Korridoreak behar bezala argizatuta egongo dira komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezarritakoaren arabera.

5.2.2. Ateak.

1.- Eraikinaren barruko ateak eranskin honen 4.1.1 puntuan («Kanpoko sarbide-ateak») deskribatutakoari egokituko zaizkio. Horrela, 1,20 m-ko biraketa-diametroak onartuko dira zabalera hori duten korridoreen aldean. Gainera, kisketak eta eskulekuak ez dira atearen planotik 7 cm baino gehiago irtengo.

2.- Ate eta hormen artean komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean adierazitako ezaugarrien arabeko kontraste kromatikoa bilatuko da.

3.- Ateak barruti baten okupazioa ikusi ahal izateko leiho edo behatxuloa duenean, bere diseinuak garaiera txikia duten edo gurgil-aulkian eserita dauden pertsonen erabiltzeko aukera eman behar zalela hartu beharko du kontuan. Horrela, bi behatxulo jarriko dira (bat lurretik 1,10 m-ra kokatua) edo, bestela, altuera horretara iritsiko den behatxulo bakarra.

5.2.3. Leihoak.

Komunikazio horizontaletan leihoak jartzen direnean irekitzeko sistema edozein izanik ere jarraian ezarriko diren zehazpenak beteko dituzte:

- Leihoen mekanismo guztiak eta itxigailuak 0,80 m-tik 1,10m-ra bitarteko altueran kokatuko dira, heldzea zailduko duen oztoporik gabe.

- Etxebizitza-erakinen edo erabilera publikoko eraikinen elementu komunetan, leihoen irekierak ez du korridorea hartuko 2,20 m-tik beherako altueran.

5.3. Komunikazio bertikalak.

1.- Komunikazio bertikalatzat, desnibel bat gainditzea eskatzen duen lekualdaketa oro hartzen da.

2.- Eraikinen barrualdean, komunikazio bertikalera iragarritasuna mugikortasun urria duten pertsonen autonomiaz erabiltzeko

moduko eraikuntza-elementuen edo elementu mekanikoen bidez bermatu beharko da.

5.3.1.- Eskailerak.

Eskaileraren diseinuak eta trazadurak, aplikagarri zaien araudia betetzeaz gain, jarraian ezarriko diren zehazpenak beteko dituzte:

- Ezingo dira eskailera-maila isolatuak eraiki.
- Eskailerapeko gutxienezko igarotze-altuera librea 2,20 m-koa izango da.
- Eskailerek kontramailaz hornituta egongo dira eta ez dute bozelik izango.
- Eskailera-mailen gainjartzeak debekatuta egongo dira.
- Eskaileraren atalik baxuenaren arkubarnera gutxienez 2,20 m-ko altuera bateraino itxi beharko da.
- Eskailera guztiak eskubandez hornituta egongo dira bi aldeetan (1,20 m-tik gorako zabalera izanez gero) eta eskailburuen (bai eta bitartekoak ere) ibilbidearen ahalik eta zatirik handienean. Eskubanden ezaugarriak hurrengo 5.3.3 puntuan adierazitakoak izango dira. Eskaileraren zabalera 2,40 m-tik gorakoa denean, bitarteko eskubandak jarriko dira.
- Eskaileretarako sarbideetan ukipen-seinaleak jarriko dira, komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezarritako ezaugarriekin.
- Eskailerak behar bezala argizatuta egongo dira, komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. Eranskinean ezarritakoari jarraiki.

5.3.3.- Eskubandak.

1.- Eskubandak lekualdatzeko edo jarrera jakin batean egoteko laguntza gisa jartzen diren euskarri elementuak dira.

2.- Eskubandak diseinatu eta jartzean kontuan hartu beharreko ezaugarri nagusiak ondokoak dira:

- Finkapena irmoa izango da behealdean eta beste edozein elementurekin gutxienez 4 cm-ko distantzia batera bereizita egongo da plano horizontalean. Eskubandaren goiko gainazaletik edozein oztoporekiko distantzia berriz (plano bertikalean), 10 cm-koa izango da.
- Diseinua anatomikoa izango da eta eskuari egokitzeko moduko forma izango du. 4 cm-tik 5era bitarteko diametroko sekzio zirkularra gomendatzen da.
- Eskubandak bikoitzak eta etengabeak izango dira eta goikoa 100 ± 5 cm-ko altueran eta behekoa 70 ± 5 cm-ko altueran ipiniko dira.
- Eskaileraren eta arrapalen hasiera eta amaiera eskuz antzemateko adierazle gisa, eskubandak 45 cm-tan luzatuko dira beren ertzetan, betiere ibilbiderik eta biratzeko edo elkartzeko azalerarik inbaditzen ez badute.

Kasu hauetan, eskubandak eskaileraren luzerakoa izan beharko du gutxienez.

- Krokadurak saihesteko moduan errematatuko dira.
- Beren kolorea arrapalen eta eskaileraren gainerako elementuekin kontrastatuko da.
- Eskaileretako eta arrapaletako eskubandetan orientazio-plakak ipiniko dira komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezarritako ezaugarriekin eta bertan ezarritako eraikinetan.

5.3.4. Igogailuak.

Eraikin zaharreen nahiz berrien egokitutako igogailu eta beronen elementuek arautegi honetan zehaztutako neurri guztiak betetzen dituzte. Igogailuen ezaugarriak eraikuntzako atalean zehaztu dira.

6. ARTIKULUA: DEPENDENTZIAK

6.1 Baldintza orokorrak.

- 1.- Distirak saihesteko zoladura lauak, mateak eta irriskaitzak gomendatzen dira.
 - 2.- Inguruneak eta/edo giroak desberdintasun kromatikoaren bidez eta argien intentsitatearen bidez bereizteko ahaleginak egingo dira eta interes-puntuak edo problematikoak (hala nola informazio-puntuak eta ateak) nabarmenduko dira.
 - 3.- Instalazioek (hala nola armairuek, arropazaindegiek, komunek, aldagela edo kamerinoek, telefonoek, makina saltzaileek eta antzekoek) eta altzariek (mostradore, aulki, mahai, paperontzi eta abarrek) eranskin honen 7. eta 8. artikuluetan ezarritakoa bete dute.
- ### 6.2 Jendeari erantzuteko eremuak.
- 1.- Interes orokorreko dependenzietarako (hala nola jendeari erantzuteko espazioak, aretoak, bulegoak eta antzekoak) irisgarritasuna eranskin honetan jasotako parametroak betez bermatuko da.

2.- Barrualdearen banaketak, gurpil-aulkia erabiltzen duen pertsona bat bertan egotea eta bira ematea ahalbidetuko du, parametro antropometrikoei buruzko eranskinean jasotako parametroen arabera.

8. ARTIKULUA. ALTZARIAK

8.1. Baldintza orokorrak.

- 1.- Erabilera publikoko dependenzietan eta instalazioetan ipintzen diren altzariek eranskin honetan zehaztutakoa bete beharko dute.
- 2.- Mugikortasun urria duten pertsonentzat erreserbatutako altzariek parametro antropometrikoei buruzko I. eranskinean jasotako parametroak bete beharko dituzte.
- 3.- Altzari horiek, ahal bada, alde berean lerrotatuta egongo dira ondokoa kontuan hartuta:

- Altzarien arteko pasagune nagusiak 1,80 m-koak izango dira.
- Altzari guztiek ertz edo izkinak kamutsak izan beharko dituzte.
- Altzariak gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonak erabiltzeko moduan diseinatuko dira eta makilak erabiltzen dituzten edo ikusmen-arazoak dituzten pertsonentzat zailtasunik edo arriskurik ez sortzeko moduan jarriko dira. Altzariak erraz aurkitzeko moduko tokian ipiniko dira, argiztapen ona izango dute eta makil baten bidez erraz antzemateko modukoak izango dira.

8.2. Mostradoreak eta leihatilak.

1.- Jendeari erantzuteko mostradore eta leihatilak 1,10 m-ko gehieneko altueran egongo dira eta gutxienez 1,20 m-ko luzerako tarte bat izango dute 0,80 mko altueran. Halaber, oztoporik gabeko tarte bat izango dute behealdean, 0,70 m-ko altuerakoa eta 0,50 mko sakonerakoa.

2.- Erabiltzaileari dagokion mostradorearen eremuan, argi-intentsitatea 500 luxekoa izango da gutxienez. 8.5. Instalazio elektrikoa

eragiteko eta funtzionazteko mekanismoak eta alarmak.

1.- Instalazio elektrikoa eragiteko eta funtzionazteko mekanismoak eta alarmak mugikortasun urria eta/edo manipulazio-arazoak dituzten pertsonen erabiltzeko moduan diseinatuko dira.

2.- Mekanismo eta alarma horiek 0,90 m-tik 1,20ra bitartean jarriko dira.

3.- Beren kolorazioa, instalatuta dauden paramentuarekin kontrastatua izango da.

4.- Halaber, komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinak alarman eta gainerako informazioeta abisu-sistemen arloan ezarritakoa bete beharko da.

8.3.- Makina saltzaileak.

1.- Erabilera-argibideak dituzten makina saltzaileek braille sistema, altuerliebea eta makrokaraktereak izango dituzte ikusmen-arazoak dituzten pertsonen autonomiaz erabili ahal izateko (aparkaleku-tiketak saltzen dituzten makinaren kasuan izan ezik). Makina horiek soinuzko informaziorako gailu bat izatea gomendatzen da.

2.- Dialak eta diru-kaxak 0,90 m-tik 1,20ra bitarteko altueran kokatuko dira.

3.- Txartelak edo saldutako produktuak jasotzea erraza izango da mugikortasun-arazoak edo manipulaztekoak dituzten pertsonentzat. 0,70 m-ko altueran kokatuta egongo dira.

8.7. Informazioa eta seinaleztapena.

1.- Eraikinaren barruan jartzen diren informazio eta seinaleztapeneko adierazleak, eserita dagoen persona batek edo, hala badokio, ikusmen-arazoak dituzten pertsonen irakurtzeko moduan kokatuko dira.

2.- Ez dituzte oinezkoentzako ibilbideak eta/edo eraikineko altzari eta instalazioen erabilera eragotziko.

3.- Paramentuei erantsita instalatzen ez direnean eta 2,20 m-tik behera kokatuta daudenean, lurreraino iritsiko dira oinplano-proiekzioerik handienarekin. Gainera, ertz borobilduekin instalatu beharko dira.

4.- Erraz aurkitzeko modukoak izango dira eta argi- maila handia eta uniformeak izango dute. Gainerako ezaugarriak komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezarritako baldintzei egokituko zaizkie.

IV. ERANSKINA. KOMUNIKAZIORAKO IRISGARRITASUNA

Atal honetako seinaleztapen-sistema, argiztapen, eta informazio-sistemen inguruan zehaztutako baldintzak beteko dira.